

ENTZIKLOPEDIA ENBLEMATIKOA
LA ENCICLOPEDIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

ECOSISTEMA RÍO
FAUNA DEL PAÍS VASCO

— IV —

IBAI-ECOSISTEMA
EUSKAL HERRIKO FAUNA

ARGITALETXEA / EDITA: © ETOR-OSTOA S.L. Lasarte-Oria

ARGITALPENAREN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN EDITORIAL

Enrique Ayerbe Echebarria

PROCEDENCIA DE TEXTOS E ILUSTRACIONES / PROCEDENCIA DE TEXTOS E ILUSTRACIONES

- Fondo editorial OSTOA, S.A.
- EKOS Estudios Ambientales, S.L.:

Supervisión científica y actualización de datos.

MAKETAZIOA ETA DISEINU GRAFIKOA / MAQUETACIÓN Y DISEÑO GRÁFICO

Begoña Goikoetxea Amonarraiz

José León Huarte Ros

IRUDIEN TRATAMENDUA / TRATAMIENTO DE IMÁGENES

Pedro Tapias Anabitarte

INPRIMAKETA ETA KOADERNAKETA / IMPRESIÓN Y ENCUADERNACIÓN

GRAFO S.A. Basauri

ISBN: 978-84-96288-67-6 (Obra completa)
978-84-96288-76-8

Lege gordailua / Dep. Legal: BI-3012-08

ENTZIKLOPEDIA ENBLEMATIKOA
LA ENCICLOPEDIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

ECOSISTEMA RÍO
FAUNA DEL PAÍS VASCO

— IV —

IBAI- EKOSISTEMA
EUSKAL HERRIKO FAUNA

FAUNA DEL PAÍS VASCO

EUSKAL HERRIKO FAUNA

EL RÍO COMO ECOSISTEMA

INTRODUCCIÓN	10
CURSO ALTO DEL RÍO	
TORRENTES	17
ARROYO DE MONTAÑA	17
VEGETACIÓN DE MONTAÑA	17
VEGETACIÓN ACUÁTICA	17
PECES	17
ANFIBIOS, AVES, MAMÍFEROS	18
CURSO MEDIO DEL RÍO	
GEOGRAFÍA Y MORFODINÁMICA	23
VEGETACIÓN ACUÁTICA	23
VEGETACIÓN DE RIBERA	23
PECES	24
ANFIBIOS, REPTILES, AVES, MAMÍFEROS	25
CURSO BAJO DEL RÍO	
GEOGRAFÍA Y MORFODINÁMICA	29
VEGETACIÓN ACUÁTICA	29
VEGETACIÓN DE RIBERA	29
PECES	30
ANFIBIOS, REPTILES, AVES, MAMÍFEROS	30
ESTUARIOS	
VEGETACIÓN DE RIBERA	33
PECES	34
ANFIBIOS, REPTILES, AVES, MAMÍFEROS	34
HUMEDALES DE INTERIOR	
ESFAGNALES	43
TURBERA	44
TRAMPALES	44
HUMEDALES ARTIFICIALES	44
SITUACIÓN GENERAL DE LOS RÍOS EN EL PAÍS VASCO	
LA DIVISORIA DE AGUAS	50
VERTIENTE CANTÁBRICA	50
VERTIENTE MEDITERRÁNEA	51

IBAIA EKOSISTEMA GISA

SARRERA	8
IBAIAREN GOIALDEA	
MENDI-UHARRAK	17
MENDI-ERREKAK	17
MENDIKO LANDARETZA	17
URETAKO LANDARETZA	17
ARRAINAK	17
ANFIBIOAK, HEGAZTIAK, UGAZTUNAK	18
IBAIAREN ERDIALDEA	
GEOGRAFIA ETA MORFODINAMIKA	23
URETAKO LANDARETZA	23
IBAIERTZEKO LANDARETZA	23
ARRAINAK	24
ANFIBIOAK, NARRASTIAK, HEGAZTIAK, UGAZTUNAK	25
IBAIAREN BEHEALDEA	
GEOGRAFIA ETA MORFODINAMIKA	29
URETAKO LANDARETZA	29
IBAIERTZEKO LANDARETZA	29
ARRAINAK	30
ANFIBIOAK, NARRASTIAK, HEGAZTIAK, UGAZTUNAK	30
ESTUARIOAK	
IBAIERTZEKO LANDARETZA	33
ARRAINAK	34
ANFIBIOAK, NARRASTIAK, HEGAZTIAK, UGAZTUNAK	34
INGURUNE HEZEAK BARRUALDEAN	
ESFAGNALEAK	43
ZOHIZKATEGI	44
TRANPALAK	43
INGURUNE ARTIFIZIALAK	44
EUSKAL HERRIKO IBAIEN EGOERA OROKORRA	
ISURIALDEEN BANALERROA	50
ISURIALDE KANTAUARIARRA	50
ISURIALDE MEDITERRANEOA	51

FAUNA FLUVIAL

INVERTEBRADOS

INSECTOS	58
MOLUSCOS	64
CRUSTÁCEOS	65

VERTEBRADOS

ANFIBIOS	72
REPTILES	74
MAMÍFEROS	76

PECES

GENERALIDADES SOBRE LOS PECES	82
DISTRIBUCIÓN DE LOS PECES	86
DIFERENCIAS ENTRE LAS VERTIENTES	88
ESPECIES	89

SALMÓNIDOS

TRUCHA DE RÍO	90
TRUCHA MARISCA, DE MAR O REO	91
SALMÓN	92
CICLO BIOLÓGICO DEL SALMÓN ATLÁNTICO	94
El alevín	96
Pintos	96
Esguines. Proceso de esmoltificación	96

CIPRÍNIDOS

BARBO COMÚN	102
CHIPA O FOXINO	104
LOINA O MADRILLA	106
GOBIO, BARBILLO O FRAILE	107
CACHO O BAGRE	108
BERMEJUELA	109

ANGUÍLIDOS

ANGUILA	110
CICLO BIOLÓGICO DE LA ANGUILA	112

OTRAS ESPECIES

COLMILLEJA	116
BLenio DE RÍO	117
CORCÓN	118
ESPINOSO	119
LOCHA	120
PLATIJA	122
COTO COMÚN	124
CABUXINO ENANO	124
SÁBALO	125

ESPECIES INTRODUCIDAS

PERCA AMERICANA O BLACK BASS	127
CARPÍN DORADO O PEZ ROJO	128
SILURO	129
PEZ SOL	129
GAMBUSIA	130
TENCA	131
CARPA COMÚN	132
LUCIO	133
TRUCHA ARCO-IRIS	134

IBAI FAUNA

ORNOGABEAK

INTSEKTUAK	58
MOLUSKUAK	64
OSKOLDUNAK	65

ORNODUNAK

ANFIBIOAK	72
NARRASTIAK	74
UGAZTUNAK	76

ARRAINAK

ARRAINEI BURUZ	82
EUSKAL HERRIKO ARRAINAK	86
BI ISURIALDEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK	88
ESPEZIEAK	89

IZOKINAK

IBAI-AMURRAINA	90
ITSAS AMURRAINA	91
SALMÓN (IZOKIA). SALMO SALAR	92
ATLANTIKOKO IZOKINAREN ZIKLO BIOLOGIKOA	94
Izokinkumea	96
Pikartak	96
Esmoltifikazio-prozesua	96

ZIPRINIDOAK

BARBOA	102
EZKAILU	104
IPARRALDEKO LOINA TXIKIA	106
GOBIOA	107
IPARRALDEKO KATXOA	108
ERRUTILU HEGATSGORRIA	109

ANGILIDOAK

AINGIRA	110
AINGIRAREN ZIKLO BIOLOGIKOA	112

BESTE ESPEZIEAK

MAZKAR ARANTZADUNA	116
IBAI-KABUXA	117
HONDOETAKO KORROKIOA	118
ARRAIN HIRUARANTZA	119
MAZKARRA LOTRE	120
PLATUXA	122
BURTAINA	124
BOKALETAKO ZARBOA	124
KODAKA	125

SARTUTAKO ESPEZIEAK

PERKA AMERIKARRA	127
URRE ARRAINA	128
SILURUA	129
ARRAIN EGUZKIA	129
GANBUSIA	130
TENKA	131
ZAMO ARRUNTA	132
LUTXO ARRUNTA	133
ORTZADAR-AMUARRAINA	134

LAS AVES

AVES DE ESTUARIO

PODICIPÉDIDAS (SOMORMUJOS Y ZAMPULLINES)

ZAMPULLÍN CUELLINEGRO	142
ZAMPULLÍN COMÚN	142
SOMORMUJO LAVANCO	143

PHALACROCORÁCIDAS (CORMORANES)

CORMORÁN GRANDE	144
-----------------------	-----

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

GARCETA COMÚN	146
MARTINETE	148
GARZA IMPERIAL	150
GARZA REAL	152
GARCILLA BUEYERA	154
AVETORO COMÚN	154
AVETORILLO	155

CICÓNIDAS (GIGÜEÑAS)

CIGÜEÑA BLANCA	156
CIGÜEÑA NEGRA	159
ESPÁTULA	159

ANÁTIDAS (PATOS Y AFINES)

ÁNADE AZULÓN	164
PATO COLORADO	166
ÁNADE FRISO	166
PORRÓN COMÚN	167

ACCIPÍTRIDAS (RAPACES)

ÁGUILA PESCADORA	168
AGUILUCHO LAGUNERO OCCIDENTAL	170

RÁLLIDAS

FOCHA COMÚN	173
GALLINETA	174
POLLUELAS	175

HEMATOPÓDIDAS (LIMÍCOLAS)

OSTRERO EUROASIÁTICO	178
----------------------------	-----

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

AVOCETA COMÚN	180
CIGÜEÑUELA COMÚN	181
AVEFRÍA COMÚN	182
CHORLITEJOS	183
CHORLITO DORADO	184
CHORLITO GRIS	184
VUELVEPIEDRAS	185
COMBATIENTE	186
ARCHIBEBES Y ANDARRIOS	187
ZARAPITOS	188
AGUJAS	189
CORRELIMOS	190
AGACHADIZA COMÚN	191

HEGAZTIAK

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

PODIZIPEDIDOAK (MURGILAK ETA TXILINPORTAK)

TXILINPORTA LEPABELTZA	142
TXILINPORTA TXIKIA	142
MURGIL HANDIA	143

PHALAKROKORAZIDOAK (UBARROIAK)

UBARROI HANDIA	144
----------------------	-----

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)

AMILTXORI ARRUNTA	149
LERTXUNTZO TXIKIA	148
LERTXUN GORRIA	150
LERTXUN HAUSKARA	152
LERTXUNTZO ITZAINA	154
TXURI-ZEZEN ARRUNTA	154
AMILTXORI TXIKIA	155

ZIKOINEN FAMILIAKOAK (AMIAMOKOAK)

AMIAMOKO ZURIA	156
AMIAMOKO BELTZA	159
MOKOZABALA ZURIA	159

ANATIDOAK (AHATEAK ETA KIDEKOAK)

BASAHATEA	164
ATE GORRIZTA	166
IPAR-AHATEA	166
MURGILARI ARRUNTA	167

AKZIPITRIDOAK (HARRAPARIAK)

ARRANO ARRANTZALEA	168
ZINGIRA-MIROTZA	170

RALLIDOAK

KOPETAZURI ARRUNTA	173
URDILO ARRUNTA	174
UROILANDA	175

HEMATOPODIDOAK (LIMIKOLAK)

ITSAS MIKA	178
------------------	-----

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

ABOZETA	180
ZANKALUZZEA	181
HEGABERA	182
TXIRRITXOAK	183
URRE TXIRRI ARRUNTA	184
TXIRRI GRISA	184
HARRI-IRAUNLARIA	185
BORROKALARI	186
BERNAGORRIAK Y KULISKAK	187
KURLINTAK	188
KULISKAK	189
TXIRRIAK	190
ISTINGOR ARRUNTA	191

AVES DE RIBERA

ALCEDÍIDAS

MARTÍN PESCADOR	193
-----------------------	-----

CÍNCLIDAS

MIRLO ACUÁTICO	196
----------------------	-----

MOTACILLAS

LAVANDERA CASCADEÑA	198
LAVANDERA BLANCA	200

HIRUNDÍNIDAS

AVIÓN ZAPADOR	201
---------------------	-----

AVES DE CARRIZAL

MUSCICÁPIDOS

CARRICERO TORDAL	203
CARRICERO COMÚN	204
CARRICERÍN COMÚN	205

URERTZEKO HEGAZTIAK

ALZEDINIDOAK

MARTIN ARRANTZALEA	193
--------------------------	-----

ZINKLIDOAK

UR ZOZOA	196
----------------	-----

BUZTANIKARAK

BUZTANIKARA HORIA	198
BUZTANIKARA ZURIA	200

HIRUNDINIDOAK

UHALDE-ENARA	201
--------------------	-----

LEZKADIETAKO HEGAZTIAK

MUSZIKAPIDOAK

LEZKARI KARRATXINA	203
LEZKARI ARRUNTA	204
BENARRIZ ARRUNTA	205

El Ezkailu o Chipa (*Phoxinus phoxinus*) y la Locha (*Barbatula barbatulus*) son las especies que acompañan a la trucha en los cursos altos.

El Coto Común (*Cottus gobio*) y la Anguila (*Anguilla anguilla*) son otros dos peces que pueden encontrarse en estas zonas.

El coto es una especie europea que sólo vive en algunos de nuestros ríos (Iparralde y Cuenca del Bidasoa) y la anguila únicamente es frecuente en los de la vertiente cantábrica.

Anfibios

Otros grupos de vertebrados también están representados en los cursos altos. Entre los ligados directamente al agua pueden citarse larvas de **anfibios** como:

- la Salamandra (*Salamandra salamandra*),
- el Sapo Común (*Bufo bufo*) y
- el Sapo Partero (*Alytes obstetricans*).

Aves

Al grupo de las aves pertenecen :

- el Mirlo Acuático (*Cinclus cinclus*),
- el Martín Pescador (*Alcedo atthis*), y
- la Lavandera Cascadeña (*Motacilla cinerea*).

Mamíferos

Son **mamíferos** propios de estos tramos y muy dependientes del medio acuático:

- el Desmán Ibérico (*Galemys pyrenaicus*),
- el Musgaño Patiblanco (*Neomys fodiens*) y
- el Turón (*Mustela putorius*), si bien este último desarrolla más su actividad en las riberas que en el propio río.

Goialdeetan ezkailuak (*Phoxinus phoxinus*) eta mazkarrak (*Barbatula barbatulus*) ere bizi dira.

Burtainak (*Cottus gobio*) eta aingirak (*Anguilla anguilla*) ere badaude.

Baina burtaina Europako espeziea da eta zenbait ibaietan soilik bizi da (Iparraldean eta Bidasoa arroan), eta aingira isurialde kantauriarreko ibaietan soilik aurki dezakegu.

Anfibioak

Beste ornodun taldeetako espezieak ere bizi dira ibaien goialdean. Urarekin harreman zuzena duten espezien artean **anfibioen** larbak daude:

- Arrabioa (*Salamandra salamandra*),
- Apo arrunta (*Bufo bufo*) eta
- Txantxikua (*Alytes obstetricans*).

Hegaztiak

Hegaztien artean:

- Ur-zozoa (*Cinclus cinclus*),
- Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta
- Buztanikara horia (*Motacilla cinerea*).

Ugaztunak

Goialdean bizi eta urarekin mendekotasun handia duten **ugaztunen** artean aipatzekoak dira:

- muturluze piriniarra (*Galemys pyrenaicus*),
- ur-satitsu hankazuria (*Neomys fodiens*) eta
- ipurtatsa (*Mustela putorius*), baina azken hori erreka bazterretan ibiltzen da uretan baino gehiago.



Ibaiertzeko landaretza ohikoa Deba ibaian.

Vegetación típica de ribera en el río Deba.



→
Agauntza ibaia Ataunen.
Ibaiaren goialdeko behe-ingurua.
Zona inferior del curso alto.
El río Agaunza en Ataun.



IBAIAREN GOIALDEA



Urederraren jaiolekua (N).
Nacedero del Urederra (N).



CURSO ALTO DEL RÍO



HUMEDALES DE INTERIOR



INGURUNE HEZEAK BARRUALDEAN



Biasteri / Laguardia (A)

OSKOLDUNAK

Es el Crustáceo de mayor tamaño de las aguas dulces. Constituye una de las piezas más codiciadas por los pescadores.

Hasta hace pocos años era muy frecuente en todos los ríos guipuzcoanos; la contaminación, la fuerte presión de pesca que sufría y, sobre todo, la llegada a nuestros ríos de una enfermedad importada (Afanomicosis), desconocida hasta ahora en estas aguas, acabó prácticamente con la presencia de esta especie, que ha quedado relegada a unos pocos enclaves, siendo muy raro encontrar algún ejemplar en la mayoría de los ríos.

Hoy en día está prohibida su pesca.

Sólo respetando estrictamente esta norma, quizá a largo plazo el Cangrejo pueda volver a instalarse en nuestros ríos.

El Cangrejo de río vive en aguas de dureza elevada, es decir de alto contenido en sales de calcio. Necesitan del calcio para que su caparazón se desarrolle en condiciones.

Ur gezetako ixkirarik handiena da eta arrantzaleentzat pieza estimatua.

Orain dela urte gutxirarte Gipuzkoako ibai guztietan ugari agertzen bazen ere, uren kutsadurak, arrantzaleen hustiapienak eta batez ere kanpotik sartutako gaitz batek (Afanomikosisak) eraginda la desagertu egin da espezie hau. Ibai gehienetan desagertu egin da. Leku bakar batzutan bakarrik aurki daiteke gaur egun karramarroa.

Bere arrantza debekatuta dago.

Arau hau zintzo beteta bakarrik lor daiteke agian, epe luzera, berriro espezie hau gure ibaietan azaltzea.

Karramarroak ur gogorretan bizi dira; hau da,


Kaltzio gatzeko kantitate handiko uretan.

Kaltzioa beharrezkoa bait dute maskorra ongi osatzeko.



Arrainei buruz

Generalidades sobre los peces



Aspecto externo de tres especies presentes en nuestros ríos, con las secciones transversales de sus cuerpos y que ilustran los tipos morfológicos que se pueden observar.

La anguila (a), con su cuerpo alargado y cilíndrico.

El barbo (b), con su cuerpo fusiforme y sección elíptica.

Por último, la platija (c), con su cuerpo aplanado.
(según Román Montull).

Cure ibaietako hiru espezieren kanpoko itxura, haien gorputzetako zeharkako ebaketekin. Ikus daitezkeen morfologia-motak erakusten dituzte.

Aingira (a), gorputz luzexka eta zilindrikoarekin.

Barboa (b), gorputz fusiforme eta ebaketa eliptikoarekin.

Azkenik, platuxa (c), gorputz zapalarekin.

(Román Montullen arabera).

Curiosamente, para un taxónomo no existen “los peces” como grupo propiamente definido. Aunque a nivel popular nos resulta fácil intuir o definir a los peces, un científico distinguiría los ciclóstomos o lampreas, que no son peces por carecer de mandíbula inferior, y al resto que sí la tienen. Entre éstos, la siguiente división se establecería entre aquéllos con esqueleto cartilaginoso (condrictios) y los que poseen esqueleto óseo (osteíctios). Los primeros son exclusivamente marinos, y agrupan a tiburones y rayas. Los segundos viven en aguas saladas, salobres o dulces, y engloban entre 20 000 y 30 000 especies. Así pues, el de los peces sería un grupo con valor más bien artificial.

Una característica morfológica de los peces es su cuerpo fusiforme, hidrodinámicamente adecuado para desplazarse por el agua.

Las aletas son los órganos propulsores y estabilizadores. Hay aletas:

- pares, como las pectorales y pélvicas,
- impares, como la anal, la dorsal y la caudal.

Según la simetría de esta última se diferencian colas:

- protocercas de las fases embrionarias;
- hetocercas, de los peces cartilaginosos;
- homocercas de los peces óseos.

La epidermis, delgada y mucosa, recubre las escamas.

La estructura interna es básicamente la misma que la de otros vertebrados.

Se puede destacar:

- La línea lateral, órgano longitudinal sensitivo que detecta cambios en la presión del medio.
- La vejiga natatoria, presente sólo en los peces óseos, funciona como una cámara de regulación, que se hincha cuando el pez se mantiene a flote y se deshinchacha cuando éste se va al fondo.
- La respiración se produce a través de las branquias, laminillas membranosas en las que se realiza el intercambio de gases, protegidas por un opérculo.
- Los peces tienen sexos separados, y su fecundación suele ser externa. La mortalidad de los huevos y alevines es muy grande: de miles de huevos fecundados, sólo algunos sobreviven.

Harritzekoa bada ere, taxonomoen iritziz arrainek ez dute talde bat osatzen. Hizkuntza herrikoia erabiltzen duenak, erraz sumatzen eta azaltzen du zer diren arrainak. Zientzialariak, ordea, zehaztuko du ziklostomoak edo lanproiak ez direla arrainak, ez baitute beheko barailarik, eta gainerakoek bai. Gainerako horien artean ere, bi talde bereiziko ditu: kartilagozko eskeletoa dutenak (kondriktiek) eta hezurrezko eskeletoa dutenak (osteiktiek). Lehenengo taldekoak marrazoak eta arraiak dira, eta itsasoan bizi dira guztiak. Bigarren taldekoak ur gazi, gazikara eta gezetan bizi dira, eta 20.000-30.000 espezie dira guztira. Beraz, «arrainen multzoa» kontzeptu artifizial samarra da.

Arrainen ezaugarri morfologikoetako bat da uretan mugitzeko hidrodinamikoki aproposa den gorputz fusiformea izatea.

Arrainen zenbait hegats:

- bikoitiak dira (bular-hegatsak eta pelbis-hegatsak)
- beste batzuk bakoitiak (uzki-hegatsa, bizkar-hegatsa eta isats-hegatsa).

Simetriaren arabera, zenbait isats-hegats bereizten dira:

- isats-hegats protozerkoak (enbrioi-egoeran dauden arrainenak),
- hetozerkoak (kartilagozko eskeletoa duten arrainenak)
- homozerkoak (hezurrezko eskeletoa duten arrainenak).


Muki-mintz mehe batez osatutako epidermisak estaltzen ditu arrainen ezkatat.

Barne-egitura beste ornodunek dutenaren berdina da funtsean.

Baina aipatzekoa da:

- Saihetseko lerroa, inguruko presio-aldaketak antzematen dituen zentzumen-organo longitudinala.
- Igeri-maskuria arrain hezurdunek soilik duten erregulazio-ganbera da: arraina ur azalean egoteko puzten da igeri-maskuria, eta ondoratzeko husten da.
- Zakatzen bidez arnasten dute arrainek: gas-trukea egiteko erabiltzen dituzten mintz txikiak dira, operkulu batez babestua.
- Arrainek sexu bereiziak dituzte eta ernalketa, gehienetan, kanpoko izaten da. Arrautzen eta arrainkumeen heriotza-tasa handia da: ernaldutako milaka arrautzetatik, bakar batzuk bakarrik irauten dute bizirik.

ATLANTIKOKO IZOKINAREN ZIKLO BIOLOGIKOA



La migración de los esguines es genética, se comportan como gregarios, y ocurre ante determinadas condiciones que actúan desencadenándola; se produce principalmente en primavera, pero hay un segundo periodo en otoño, menos importante.

En abril se produciría el descenso más importante de esguines en el río Bidasoa y ocurre tanto de día como de noche. La migración coincide con:

- una variación importante del nivel del agua,
- con la elevación de la temperatura,
- con el aumento de la turbidez
- y con el aumento de la intensidad de la radiación luminosa.

Izokin gazteen migrazioak izaera genetikoa du: baldintza jakin batzuetan, taldekoi bihurtzen dira. Udaberrian gertatu ohi da, batez ere, baina udazkenean izatea ere litekeena da, neurri apalagoan.

Bidasoan, apirilean izan ohi da jaitsiera garrantzitsua, bai egunez, bai gauzez. Migrazioa zenbait aldaketekin batera gertatzen da:

- ur-maila aldatu egiten da,
- temperaturak igotzen dira,
- ura arreagoa dator
- eta argitasun handiagoa dago.

CICLO BIOLÓGICO DEL SALMÓN ATLÁNTICO

Migración a zonas de engorde

Algunos salmones machos alcanzan la madurez sexual en agua dulce antes de producirse el proceso de la esmoltificación, este hecho es de gran trascendencia, ya que asegura la reproducción en la siguiente temporada y la pronta localización de los frezaderos a los salmones provenientes del mar.

Los salmones forman bancos que se dirigen desde el estuario a las zonas de engorde en Groenlandia, situadas principalmente en la costa suroeste, entre los paralelos 60° y 70°.

Apenas se conoce el trayecto marino que siguen, pero se sabe que nadan a una profundidad de unos 3 m. y activamente, con un recorrido diario medio en torno a los 50 km.

Como medios de orientación para llegar a la zona de engorde y viceversa, se han mencionado diferentes hipótesis; utilización de la navegación astronómica, campo de fuerzas gravitacionales, campo geomagnético y campo geoelectrico.

En estas aguas viven de 1,5 a 3 años; crecen y alcanzan la madurez sexual, pasándose a denominar salmones.

Retorno a los ríos de origen

Transcurrido este periodo se dirigen hacia los ríos de origen.

Los salmones-trucha a que hemos hecho referencia al inicio de estos comentarios son los salmones que no pasan más que un invierno en el mar, de ahí que se les llame añales. No van a Groenlandia sino a las islas Feroes y pasan más tiempo cerca de las costas; en realidad poco se sabe de sus migraciones.

Un 3% de los esguines aproximadamente permanecerá únicamente un año en el mar;

- el 60% lo harán durante dos años
- y un 30% aproximadamente lo harán tres años.

Y únicamente un 3% de los salmones que regresaron a las zonas de engorde volverá a los ríos para reproducirse.

Migrazioa gizontzeko eremuetara

Izokin ar batzuek ur gezetan lortzen dute sexu-heldutasuna, esmoltifikazio-prozesua gertatu baino lehenago. Horrek berebiziko garrantzia du, ugalketa bermatzen baitu, eta itsasotik datozen beste izokinak ere erakartzen baititu erruteko lekura.

Izokin gazteek, estuariotik Groenlandiako gizontzeko lekuetara joateko, sardak osatzen dituzte. Groenlandiako hego-mendebaldeko itsasertzera joaten dira gehienbat, 60° eta 70° paraleloen artera.

Egiten duten ibilbidea ez dugu ezagutzen, baina badakigu hiru metroko sakoneran egiten dutela igeri, egunean 50 km inguru aurreratuz, batez beste.

Gizontzeko lekura joateko eta handik itzultzeko erabiltzen duten orientazio-sistemari buruz zenbait hipotesi adierazi dira: nabigazio astronomikoa, grabitazio-eremua, eremu geomagnetikoa eta eremu geoelektrikoa.

Ur horietan igarotzen dute urte eta erdi, gutxienez, eta hiru urte, gehienez.

Jatorrizko ibaietara itzulera

Hazten dira eta sexu-heldutasuna lortzen dute: benetako «izokin» bihurtzen dira. Epe horren buruan, ibaietara itzultzen dira: bakoitza bere sorlekura.

Hasieran aipatu ditugun **izokin-amuarrainak** itsasoan negu bakarra igarotzen duten amuarrainak dira. Ez dira Groenlandiara joaten, Feroe irletan geratzen dira eta denbora gehiago egiten dute itsasertzean. Dena dela, ezer gutxi dakigu migrazio horiei buruz.

Gutxi gorabehera, izokin gazteen %3k urtebete egiten du itsasoan;

- %60k bi urte igarotzen ditu itsasoko uretan;
- eta %30 hiru urtez bizi dira itsasoan.

Gizontzeko lekuetara joaten diren izokinetatik %3 soilik itzultzen da ibaietara ugaltzera.

ATLANTIKOKO IZOKINAREN ZIKLO BIOLOGIKOA




INCIDENCIAS DE RÍO

LA PRESA



Kirol-arrantza.

Pesca deportiva.



Arrain-haztegia.

Piscifactoría.


IBAIAREN GORABEHERAK

PRESA



Eskala Bidasoa ibaian.
Escala en el río Bidasoa.

ZIPRINIDOAK



Gobio, Barbillo o Fraile (Gobioa). *Gobio gobio*

El Gobio tiene un tamaño de 13-15 cm, aunque en ocasiones puede llegar a alcanzar los 20 cm.

Es una especie que habita en aguas de curso rápido, limpias y bien oxigenadas; normalmente vive en zonas poco profundas. Se encuentra en el **curso medio y bajo** de los ríos de la región mediterránea y en la zona inferior del **curso alto** de la región atlántico-oriental.

Su régimen alimenticio es muy variado; captura crustáceos, moluscos, insectos y sus larvas, pececillos y huevos de otras especies. Es una especie bentónica y parece ser que en verano forma pequeños cardúmenes, mientras que en invierno vive solitario.

La puesta se realiza en zonas de poco caudal y aguas rápidas, sobre grava y entre las plantas, en mayo-junio. Cada hembra coloca unos 500-3.000 huevos. Los jóvenes tienen tendencia a vivir en grupos.

Gobioa (Gobio, Barbillo o Fraile). *Gobio gobio*

3-15 cm luze izaten da gobioa eta, batzuetan, 20 cm izatera ere iristen da.

Ur bizi eta lasterretan bizi da, betiere ur garbi eta ondo oxigenatuetan. Sakonera eskaseko urak gogoko ditu. Isurialde mediterraneoko ibaien erdialdean eta behealdean bizi da, eta isurialde kantauriarreko ekialdean ere bai, ibaien goialdeko beheko zatian.

Mota askotako elikagaiak jaten ditu: krustazeoak, moluskuak, intsektuak eta intsektu-larbak, arraintxoak, eta beste espezieen arrautzak. Arrain bentikoak dira. Udan sarda txikiak osatzen dituzte eta neguan, berriz, bakarka ibiltzen dira.

Sakonera gutxiko uretan erruten dute, ur bizi eta lasterretan, hartxintzarren gainean edo landare artean, maiatzean edo ekainean. Eme bakoitzak 500-3.000 arrautza jartzen ditu. Gobio gazteak taldean bizi dira.



CIPRÍNIDOS

Cacho o Bagre (Iparraldeko Katxoa).

Leuciscus cephalus

El Cacho puede alcanzar un tamaño máximo de 50-60 cm, pero normalmente no supera los 30-40 cm de longitud total.

Es una especie propia del curso bajo de los ríos que vive en zonas de aguas profundas y corrientes, con abundante vegetación.

Es gregario y suele formar grandes cardúmenes que nadan casi en la superficie. Es una especie voraz y con un régimen alimenticio muy amplio; se alimenta de insectos aéreos y acuáticos, gusanos, moluscos, huevos de otras especies, plantas acuáticas y semillas. Algunos adultos capturan peces.

La puesta tiene lugar en abril-junio, en zonas donde el agua discurre despacio.

Cada hembra pone del orden de 100.000-200.000 huevos.

Iparraldeko Katxoa (Cacho o Bagre).

Leuciscus cephalus

Gehienetan 30-40 cm luze izaten da, baina 50-60 cm izatera irits daiteke.

Ibaien behealdean bizi da.

Ur bizi eta sakonak behar ditu, eta landare ugari.

Taldekoiak dira eta sarda handietan ibiltzen dira igerian, ia ur azalean. Jatun handiak dira eta era askotako elikagaiak jaten dituzte: aireko eta ureko intsektuak, harrak, moluskuak, beste espezieen arrautzak, uretako landareak eta haziak. Zenbait helduk arrainak ere harrapatzen dituzte.

Apiriletik ekainera bitartean erruten dute, urak geldiro doazen tokian.

Eme bakoitzak 100.000-200.000 arrautza jartzen ditu.



ZIPRINIDOAK



Bermejuela (Errutilo Hegatsgorria). *Rutilus arcasii*

La madrilla de aletas rojas o Bermejuela alcanza un tamaño máximo de 25 cm, aunque normalmente su talla oscila entre 10-15 cm.

Es una especie propia del curso medio y bajo de los ríos de la vertiente mediterránea. Gusta de zonas medianamente profundas y con vegetación.

La Bermejuela, al igual que la Loina, es gregaria, vive en grandes cardúmenes que se desplazan continuamente a través del río. Es una especie omnívora; se alimenta de un variado número de insectos, crustáceos, moluscos e, incluso, vegetales en semidescomposición.

La puesta tiene lugar en abril-junio, en zonas de aguas quietas y poco profundas, o en pequeñas corrientes; cada hembra pone varias docenas de miles de huevos. Los jóvenes tienden a formar cardúmenes muy pronto y es muy frecuente que se desplacen por el río en gran número, de forma semejante a los adultos.

Errutilo Hegatsgorria (Bermejuela). *Rutilus arcasii*

Errutilo hegatsgorria 25 cm luze izatera irits daiteke baina, gehienetan 10-15 cm-ko luzera izaten du.

Isurialde mediterraneoko ibaien erdialdean eta behealdean bizi da. Sakonegiak ez diren urak atsegin ditu, landare ugari dutenak.

Loina txikiaren antzera, errutilo hegatsgorria ere taldekoia da, sarda handietan ibiltzen da ibaian, batetik bestera.

Orojalea da: mota askotako intsektuak, krustazeoak, moluskuak, eta landare erdi-ustelak ere jaten ditu.

Apiriletik ekainera bitartean erruten du: sakonera eskaseko ur bareetan edo ur-laster txikietan jartzen ditu arrautzak.

Eme bakoitzak milaka dozena arrautza jartzen ditu.

Arrain gazteak berehala hasten dira sarda handietan ibiltzen, zaharragoak ibiltzen diren antzera.



ESPECIES INTRODUCIDAS

Gambusia (Gambusia). *Gambusia affinis*

La Gambusia es una especie de pequeño tamaño, entre 3 y 5 cm y que raramente sobrepasa los 6 cm.

Fue introducida desde América del Norte para combatir el paludismo, ya que se alimenta de larvas de mosquitos, entre otras especies, y hoy día está muy extendida, aunque su presencia en nuestras lagunas se deba a su continua introducción. A pesar de todo, es una especie más bien rara.

Esta especie presenta un marcado dimorfismo sexual: la hembra es de mayor tamaño y el macho tiene su aleta anal modificada, muy alargada y fina, que le sirve como órgano copulador. Es de las pocas especies en que se produce cópula.

En su régimen alimenticio se incluyen larvas de insectos y crustáceos. Es una especie muy resistente a las condiciones adversas del medio.

Cada año una hembra es capaz de poner varias veces y no lo hace en forma de huevos, sino que pone las crías vivas. Cada parto puede constar de unas 50, perfectamente formadas. Este hecho, unido a la facilidad de adaptación a ambientes diferentes, hace que constituya en algunos lugares una auténtica plaga y desplaza a numerosas especies, al ocupar su nicho ecológico.



Gambusia (Gambusia). *Gambusia affinis*

Gambusia arrain txikia da, 3-5 cm luze izaten da, eta oso gutxitan hazten da 6 cm baino luzeago.

Ipar Amerikatik ekarria da paludismoari aurre egiteko, eltxo-larbak jaten baititu, besteak beste.

Gambusia zabaldu egin da, behin eta berriro sartu dutelako gure urmaeletan. Hala ere, espezie nahiko arraroa da.

Sexu-dimorfismo nabarmena dute: emeak handiagoak dira, eta arren uzki-hegatsa eraldatu eta kopulazioan erabiltzeko organo luze eta fin bihurtu da. Arrain espezie gutxi kopulatzen dute, eta gambusia da espezie horietako bat.


Intsektu-larbak eta krustazeoak jaten dituzte. Oso espezie zaildua da eta ondo gainditzeko inguruko eragozpenak.

Emeak ez ditu arrautzak jartzen: arrainkume biziak erditzen ditu. Urtean behin baino gehiagotan erditzeko gai da eta erditze bakoitzean 50 ume egiten ditu, ongi eratuak.

Horrela ugaltzen delako, eta ingurune ezberdinetara erraz egokitzen delako, zenbait tokitan gehiegi ugaltu da gambusia eta bertako espezieen txoko ekologikoa bereganatu eta espezie horiek ordezkatu egin ditu.



SARTUTAKO ESPEZIEAK



Tenca (Tenka). *Tinca tinca*

La Tenca tiene un tamaño medio de 25-30 cm, aunque en ocasiones puede llegar a alcanzar hasta 60 cm.

Es una especie propia de zonas profundas y remansadas, con abundante vegetación; se encuentra en las represas del curso medio de los ríos y en el *curso bajo*, así como en las lagunas y embalses.

Esta especie es muy resistente a las bajas concentraciones de oxígeno disuelto en el agua, lo que hace que sea capaz de vivir en condiciones límites, como el Carpín Común y la Carpa. La Tenca se alimenta de insectos y larvas de éstos, así como de moluscos, crustáceos, etc.

La puesta tiene lugar en primavera-verano; se realiza en aguas someras y ricas en vegetación.

Cada hembra es capaz de poner de 200.000 a 500.000 huevos, sobre plantas o en el fondo del agua.

Tenka (Tenca). *Tinca tinca*

Tenka (zaparda ere esaten zaio kolore arre iluna duenean) 25-30 cm luze izaten da, batez beste, baina 60 cm luze izatera irits daiteke.

Ur bare eta sakonak behar ditu eta landare ugari. Ibaien erdialdeko ur bilduetan eta ibaien behealdean bizi da, eta baita urmael eta urtegietan ere.

Oxigeno gutxi duten uretan ere bizitzeko gai da tenka, eta horregatik baldintza kaskarrenetara ere egokitzen da, zarbo txiki eta zarbo arrunten antzera.


Tenkak janaritzat ditu intsektuak eta intsektu-larbak, moluskuak, krustazeoak, etab.

Udaberri-udan erruten du, sakonera eskasa eta landare ugari duten uretan.

Eme bakoitzak 200.000-500.000 arrautza jar ditzake, landare artean edota ibaiaren hondotan.



ESPECIES INTRODUCIDAS



Carpa Común (Zamo Arrunta). *Cyprinus carpio*

La Carpa Común puede llegar a medir hasta 1 m, aunque normalmente no supera los 40 cm.

Es una especie que fue introducida en tiempos remotos por los romanos. Vive en aguas de poca corriente del curso medio y bajo de los ríos, así como en las lagunas y embalses.

Es una especie muy resistente a las bajas concentraciones de oxígeno disuelto en el agua y a la suciedad de la misma. Es omnívora; se alimenta tanto de plantas y restos de vegetales, como de invertebrados varios.

La puesta tiene lugar al inicio del verano, con temperaturas del agua elevadas, entre 15 y 20° C. Para ello escoge aguas poco profundas y coloca los huevos entre la vegetación. Cada hembra es capaz de poner entre 100.000 y 1.000.000 de huevos.

Zamo arrunta (Carpa Común). *Cyprinus carpio*

Metro bat luze izatera irits daiteke zamo arrunta, baina gehienetan 40 cm luze izaten da.

Erromatarrek aspaldi sartutako espeziea da. Oso biziak ez diren uretan bizi da, ibaien erdialdean eta behealdean, eta baita urmael eta urtegietan ere.

Oxigeno gutxi eta zikinkeria ugari duten uretan ere bizitzeko gai da. Orojalea da: landareak, landare-hondakinak eta hainbat ornogabe ere jaten ditu.

Uda hasieran erruten du ur beroetan (15-20°C).

Sakonera eskaseko urak aukeratzen ditu eta landareen artean jartzen ditu arrautzak.

Eme bakoitza 100.000-1.000.000 arrautza jartzeko gai da.



SARTUTAKO ESPEZIEAK



Lucio (Lutxo Arrunta). *Esox lucius*

El Lucio es una especie de gran tamaño, que puede llegar a medir hasta 90 cm, si bien en algunas raras ocasiones se pueden encontrar ejemplares de 1 y 1,5 m.

Es una especie que ha sido introducida en las lagunas y estanques desde hace tiempo; también se encuentra en los ríos de corriente suave, del curso bajo.

Es un pez solitario y depredador por excelencia: se oculta entre la vegetación y espera que alguna presa pase en sus inmediaciones para, de un movimiento rápido, capturarla. Es muy voraz y, a menudo, caníbal. Se alimenta de peces y, en ocasiones, ha llegado a capturar ejemplares de la mitad de peso que su cuerpo. Es el típico ejemplo de pez depredador.

La puesta tiene lugar en febrero-mayo y se realiza en aguas someras, entre la vegetación; cada hembra pone del orden de 20.000-80.000 huevos. Las larvas permanecen después del nacimiento varios días adheridas a las hojas de ramas acuáticas.

Lutxo arrunta (Lucio). *Esox lucius*

Arrain luzea da lutxo: 90 cm-ko luzera izaten du, eta metro bat edota metro eta erdi izatera ere irits daiteke.

Aintzira eta urmaeletan sartu zuten aspaldi, eta ibaien behealdeko ur bareetan ere bizi da.

Arrain bakartia da eta harrapari aparta: landare artean ezkutatzen da eta harrapakinen bat pasa zain egoten da, mugimendu azkar batez bat-batean harrapatzeko. Jatun handia da eta, sarritan, bere espeziekoak ere jaten ditu. Arrainak jaten ditu, eta bere pisuaren erdia dutenak ere harrapatzen ditu. Arrain harrapariaren eredu argia da.

Otsailetik maiatzera bitartean erruten du, oso sakonak ez diren uretan eta landare artean. Eme bakoitzak 20.000-80.000 arrautza jar ditzake. Arrautzetatik ateratzen diren larbek egun batzuk egiten dituzte uretako landareen hostoei erantsita.



ESPECIES INTRODUCIDAS

Trucha Arco-iris (Ortzadar Amuarraina).

Oncorhynchus mykiss

La Trucha Arco-iris suele medir unos 25-50 cm, pudiendo llegar a alcanzar un máximo de 70 cm.

Es una especie americana que se introdujo en los ríos por su mayor tolerancia a la temperatura y resistencia a concentraciones más bajas de oxígeno.

Sin embargo, y dada su falta de adaptación a las condiciones de nuestros ríos, no llega a reproducirse y, por tanto, las repoblaciones que se venían realizando con esta especie se han dejado de efectuar, salvo raras excepciones.

Hoy día, se explota comercialmente en las piscifactorías.

Los alevines suelen ser víctimas de multitud de depredadores, y aunque en las piscifactorías carecen de ellos, una nueva especie los ha incluido en su dieta como presa habitual, el **Martín Pescador**.

Es frecuente que en las inmediaciones de aquéllas se instalen gran número de parejas de esta especie.

Las jóvenes truchas sienten la necesidad de acudir al mar, al cabo de unos dos años, al igual que lo hace la especie originaria de América: éste es uno de los motivos por los que la reproducción en el río no tiene continuidad ni éxito ulterior, en los pocos casos en que se ha llegado a producir.

En este sentido, la Trucha Arco-iris es comparable a la **Trucha Marisca** o **Reo**, ya que tiene unas costumbres similares.

Los ejemplares que viven en condiciones naturales en nuestros ríos, suelen ocupar el curso alto y el curso medio.

Ortzadar-amuarraina (Trucha Arco-iris).

Oncorhynchus mykiss

25-50 cm-ko luzera izan ohi du ortzadar-amuarrainak eta, gehienez ere, 70 cm-ko luzera hartzen du.

Kaliforniatik ekarritako espeziea da eta 1890ean sartu zuten gure ibaietan, tenperatura aldaketei eta oxigeno eskasiari aurre egiteko gai delako. Hala ere, gure uretan ez du giro egokirik aurkitu, antza, eta ez da ugaltu. Emaitzak ikusita, espezie honekin egiten ziren birpopulaketak ez dira jada egiten, salbuespenak salbuespen.

Gaur egun arrain-haztegietan ustiatzen dituzte.

Ortzadar-amuarrainen kumeak mokadu goxoa dira harrapari askorentzat. Arrain-haztegietan ez dago harraparik, baina arerio berri bat atera zaie: **martín arrantzalea**.

Espezie horren ohiko janari bihurtu dira ortzadar-amuarrainak, eta arrain-haztegien inguruan martin arrantzale bikote ugari biltzen da.

Ortzadar-amuarrain gazteek, bi urteren buruan, itsasora joateko grina izaten dute, Amerikan egiten duten antzera. Hori da, hain zuzen ere, ibaietan egindako ugalketa urrien arrakasta eskasaren arrazoietakoa bat. Itsas amuarrainaren antzeko ohiturak ditu ortzadar-amuarrainak. Gure ibaietan aske uzten dutenean ibaien goialdean eta erdialdean bizi da.



HEGAZTIAK

LAS AVES





Estuarioko hegaztiak

Aves de estuario

En el País Vasco, enclavado en un continente ornitológicamente pobre como es Europa, contamos con unas 90 especies de aves ligadas al medio fluvial y palustre. De éstas sólo 35 especies se reproducen en Euskal Herria, mientras que el resto pasan el invierno en nuestra tierra o la atraviesan en sus desplazamientos migratorios.

Al estudiar el medio fluvial y las comunidades orníticas asociadas a éste, se ha de destacar en primer lugar que el río es mucho más que una simple corriente de agua.

La existencia de taludes terrosos donde excavar los nidos:

- la presencia de masas de carrizo o espadaña
- y de una ripisilva o bosque de ribera que, desde las estrechas alisedas de montaña.
- A las alamedas y choperas de llanura bordea el río y sirve de refugio para las aves, junto con los recursos tróficos que ofrecen las aguas, condicionan la composición de la comunidad ornítica fluvial.

Ornitologikoki urria den Europan kokatua dago Euskal Herria, eta ibai nahiz paduretako laurogeita hamar bat espezien bizileku da. Espezie horietatik hogeita hamabost soilik ugaltzen dira Euskal Herrian. Gainerakoek negua igarotzen dute gure lurraldean, edo hemendik pasatzen dira migrazio-ibilbidea egiteko.

Ibaiak eta haien inguruko hegazti-espezieak aztertzean, aipatu behar da, lehenik eta behin, ibaia ez dela ur hutsa. Ibaietako hegazti-komunitatearen eraketa baldintzatzen duten hainbat elementu daude:

- lurrezko ibaiertz malkartsuak egotea (haietan zulatu eta habiak egiteko),
- hegaztien babesleku diren lezkadiak
- eta ibar-basoak egotea ibai ondoan (haltzadi estuak mendietan, lautadetako lertxundi eta makal-diak lautadetan), eta ibaiak eskaintzen dituen baliabide trofikoak (elikagaiak) egotea.

Casi todas las aves de los cursos superiores del río pueden observarse en la marisma en una u otra época del año. En las aguas libres, ricas en peces y crustáceos, las especies buceadoras que capturan sus presas bajo el agua como:

- cormoranes (*Phalacrocorax carbo*),
- colimbos (*Gavia s.p.*),
- somormujos (*Podiceps s.p.*) y
- serretas (*Mergus s.p.*),

Se ven complementadas por aves que actúan desde el aire sobre peces de las aguas superficiales.:

- gaviotas (*Larus s.p.*) y
- charranes (*Sterna s.p.*),

Aguas someras y charcas rodeadas de vegetación son el hábitat preferido por:

- garzas (*Ardea s.p.*)
- garcetas (*Egretta garzetta*),
- martinetes (*Nycticorax nycticorax*),
- zampullines (*Podiceps ruficollis*),
- fochas (*Fulica atra*),
- gallinetas (*Gallinula chloropus*) y
- ánades (*Anas s.p.*),

Ibaietako ibilbidearen azken zatiko hegazti gehienak paduran ikus daitezke urte-garai batean edo bestean. Ur libreak aberatsak dira arrain eta krustazeoetan; haietan hainbat arrain murgilari ikus daitezke. Hegazti horiek uraren azpian harrapatzen dituzte arrainak hala nola:

- ubarroiak (*Phalacrocorax carbo*),
- aliotak (*Gavia s.p.*),
- murgilak (*Podiceps s.p.*) eta
- zerrak (*Mergus s.p.*),

Haien ondoan airetik aritzen diren uraren azaleko arrainen gainean mokoka:

- kaioak (*Larus s.p.*) eta
- txenadak (*Sterna s.p.*),

Ondorengo hegazti hauek, berriz, ur ez oso sakonak eta landareztaz inguraturako urmaelak dituzte gustuko habitat:

- lertxunak (*Ardea s.p.*)
- lertxuntxoak (*Egretta garzetta*),
- amiltxoriak (*Nycticorax nycticorax*),
- txilinportak (*Podiceps ruficollis*),
- kopetazuriak (*Fulica atra*),
- uroiloak (*Gallinula chloropus*) eta
- ahateak (*Anas s.p.*),



AVES DE ESTUARIO

PHALACROCORÁCIDAS (CORMORANES)

Cormorán Grande (Ubarroi Handia).

Phalacrocorax carbo

Es un ave también piscívora, que se deja ver con facilidad en humedales y ríos posada en troncos con las alas entreabiertas, secando su plumaje.

Aunque ha criado esporádicamente, recibimos elevados contingentes de invernantes. Utilizan dormideros comunales situados en arboledas protegidas de embalses o bahías, en los que pueden llegar a concentrarse centenares de ejemplares. Durante el día se reparten por todo tipo de ambientes acuáticos continentales.



Ubarroi Handia (Cormorán Grande).


Phalacrocorax carbo

Hegazti arrainjalea da. Erraz ikusten da ingurune heze eta ibaietan, enbor gainean pausatuta, hegoak erdi zabalik, lumak lehor daitezzen. Noizbehinka egiten dute habia Euskal Herrian, baina ubarroi gehienak negua pasatzera etortzen zaizkigu. Urtegi eta badietako zuhaiztien babesean egiten dute lo, eta ehunka ubarroi handi bildu daitezke horrelako lekuetan. Egunez, berriz, mota guztietako ur-ingurune kontinentaletan ibiltzen dira.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

PHALAKROKORAZIDOAK (UBARROIAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Ardeidas

Son representantes de la familia de las ardeidas:

- Avetoro,
- Avetorillo,
- Garza Real,
- Garza Imperial,
- Garceta,
- Garcilla Bueyera,
- Martinete...

Inconfundibles por sus largas patas y cuello, grácil silueta en la que al volar sólo sobresalen las patas tras la cola, por llevar el cuello recogido, y batir lento de alas.

El pico en forma de puñal que nos habla de su dieta depredadora.

Su alimentación, basada en animales vivos como peces, anfibios, insectos, crustáceos y otros invertebrados acuáticos, se diferencia de unas especies a otras en el tamaño de sus presas y la profundidad a las que las capturan, dependiendo de la talla del ave y la longitud de sus picos y patas.

Además, dado que Garza, Garceta y Garcilla Bueyera son diurnas y Martinete, Avetoro y Avetorillo nocturnas, rara vez entran en competencia.

Como la del resto de los depredadores, su presencia en un ecosistema es un buen índice de la salud de éste.

Ardeidoak

Ardeidoen familiakoak dira:

- Txori Zezena,
- Amiltxori Txikia,
- Lertxun Hauskara,
- Lertxun Gorria,
- Lertxuntxo Txikia,
- Lertxuntxo Itzaina,
- Amiltxori Arrunta, etab.

Hanka eta lepo luzeak dituzten hegazti lirainak dira. Hegan egiten dutenean, lepoa bilduta eramaten dute eta hankak, berriz, buztanaren atzean luzatuta. Hegoak astiro mugitzen dituzte.

Sastakai itxurako mokoek adierazten digute hegazti horiek harrapariak direla.

Animalia biziak jaten dituzte: arrainak, anfibioak, intsektuak, krustazeoak eta uretako beste ornogabeak. Espezien arteko desberdintasunei erreparatzean, bakoitzaren altuera, eta bere moko eta hanken luzera funtsezkoak dira, horiek mugatzen baitute bai harrapakinen tamaina, bai arrantza egiteko behar duten ur-sakonera.

Gainera, espezie batzuk eguneko hegaztiak dira (lertxuna, lertxuntxo txikia eta lertxuntxo itzaina) eta beste batzuk gauekoak (amiltxori arrunta, txori zezena eta amiltxori txikia). Beraz, ez dute ia elkarrekin lehiatzen.

Gainerrako harraparien kasuan gertatzen den bezala, hegazti horien presentziak adierazten du ekosistemaren osasun-egoera ona dela.

Garceta Común (Lertxuntxo Txikia)

Egretta garzetta

Tiene un plumaje inmaculadamente blanco contrastando elegantemente con su pico y patas negras.

Engalana su librea nupcial con dos largas plumas adornando su nuca y podemos observarla en aguas tranquilas y someras de nuestros ríos, completamente inmóvil, como si de una bella escultura se tratara, con su cabeza mirando al agua, acechando. Cuando un pececillo se aproxima, lanza su temible pico con gran precisión. Completan su dieta anfibios, crustáceos, moluscos e insectos.

Aunque puede verse en Navarra como invernante ocasional, es más frecuente durante esta época en la Comunidad Autónoma Vasca, especialmente en marismas costeras como Urdaibai o Txingudi.

Su presencia estival se reduce a los sotos del Ebro, nidificando unas pocas parejas en la laguna de Las Cañas.

Lertxuntxo Txikia. (Garceta Común)

Egretta garzetta

Lumaje zuri-zuria du, moko eta hanka beltzekin kontraste dotorea egiten duena.

Bere eztei-jantziak bi luma luze ditu garondoan.

Gure ibaietan ikus dezakegu, sakonera eskaseko ur bareetan.

Geldi-geldirik egoten da zelatan, eskultura baten antzera, beti urari begira. Arraintxo bat inguratzen denean, lertxuntxo txikiak bere moko beldurgarriarekin harrapatzen du doitasun handiz. Anfibioak, krustazeoak, moluskuak eta intsektuak ere jaten ditu.

Negu partean Nafarroan ikus daiteke noizbehinka, baina Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoagoa da, batez ere Urdaibai eta Txingudiko paduretan.

Udan Ebroko ibar-basoetan soilik ikus daitezke lertxuntxo txikiak: bikote batzuk Las Cañas urtegian egiten dituzte habiak.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDKOAK)



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Martinete (Amiltxori Arrunta). *Nycticorax nycticorax*

Su nombre latino define perfectamente a esta garza –cuervo de noche– por sus costumbres crepusculares y nocturnas y grito que recuerda al de los cuervos. Es estival en nuestra geografía, a donde llega en la primavera procedente del África tropical.

Nidifica en colonias sobre árboles de ribera que le brinden la necesaria tranquilidad, pero es capaz de adaptarse –si no encuentra éstos– haciéndolo en carrizales, como ocurre en la Reserva Natural de la laguna de Las Cañas, la más importante colonia de Euskal Herria.

A partir de su instalación en 1975, su aumento ha sido constante. Desde 1987, la laguna de Las Cañas viene cumpliendo el mínimo exigido por el Convenio de Ramsar, para ser considerada Zona de Importancia Internacional, puesto que el número de parejas nidificantes de Martinete supera la cifra de 75 considerada como criterio numérico para esta especie.

Parejas sueltas han nidificado también, o lo han intentado, en sotos del Río Ebro y Río Aragón, pero más del 90% de las parejas nidificantes en Navarra se concentra en Las Cañas. En la Comunidad Autónoma Vasca, algunos ejemplares se dejan ver también a lo largo del Ebro y otros ríos mediterráneos, sin que se haya confirmado su cría.

Amiltxori Arrunta (Martinete). *Nycticorax nycticorax*

Amiltxori arruntaren latinezko izenak –gaueko belea– ondo adierazten ditu hegazti horren ohitura gautarrak eta beleen antzera egiten dituen karrankak. Afrika tropikaletik etortzen da udaberrian, eta uda partean ibiltzen da Euskal Herrian.

Beharrezko babes eta lasaitasuna ematen duten ur-bazterreko zuhaitzetan egiten dituzte habiak, koloniak osatuz.

Baina, zuhaitzik ez badute aurkitzen, inguruko baldintzetara egokitu eta lezkadietan egiten dituzte habiak. Las Cañas Natur Parkeko urtegian, hain zuzen ere, lezkadietan egiten dituzte habiak, eta hura da Euskal Herriko amiltxori arruntaren koloniarik handiena.

1975ean kokatu ziren han eta harrez gero, amiltxori arruntaren populazioak etengabe egin du gora. 1987az geroztik Las Cañas urtegiak gaitzen ditu Nazioarteko Hezegune Garrantzitsu izateko Ramsar hitzarmenean zehaztutako gutxiengoak. Amiltxori arruntaren kasuan, 75 bikote osatzen dute gutxiengo hori.

Zenbait bikote habia egin izan dute –edota horretan saiatu dira– Ebro eta Aragoi ibaietako ibar-basoetan, baina Nafarroan ugaltzen diren amiltxori arruntaren %90 Las Cañas urtegian daude. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Ebron eta isurialde mediterraneoko beste ibaien inguruan ikusten dira amiltxori arruntak, baina oraindik ez da baiezta hantzen ugaltzen direnik.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDEKOAK)



Tras la puesta, de 3-5 huevos de color azul-verdoso pálido, ambos padres incuban durante 21 días y los pollos, que son alimentados por los dos –a base principalmente de anfibios y peces– andan por los alrededores durante unos 20 días. Vuelan a los 35-40 días, y a lo largo del mes de julio se emancipan abandonando la colonia, pudiendo ser vistos a muchos kilómetros de sus lugares de origen.

A finales de agosto y durante septiembre y octubre, emigran –de noche– hasta alcanzar África tropical.

La población nidificante en Navarra supera el centenar de parejas, distribuidas principalmente en colonias, en una decena de carrizales. Destacan como lugares de nidificación, las lagunas de Las Cañas con 26-28 parejas y un carrizal cercano a Villafranca, con 33-38 parejas, seguidos muy de cerca por la laguna de Cardete, en Tudela, con 21-23 parejas reproductoras.

Sin embargo, otros carrizales de lagunas de la Ribera y sotos del Arga y Ebro, no deben ser menospreciados, pues constituyen una garantía frente a la vulnerabilidad que supone la concentración de efectivos en unos pocos humedales, en los que cualquier contratiempo afectaría de forma irreversible a la mayoría de la población.

En la Comunidad Autónoma Vasca sólo es observada durante los pasos migratorios, si bien recientemente alguna pareja ha criado en los humedales de Laguardia, en Álava.

Kolore urdin berdexka argia duten 3-5 arrautza jartzen dituzte, eta bi gurasok 21 egunez txitatzen dituzte arrautzak. Txitak jaiotzen direnean, bi gurasok arduratzen dira haiei jaten emateaz –anfibioak eta arrainak, batez ere– eta hogei bat egunez ibiltzen dira kumeak habi inguruan. 35-40 egun dituztenean, hegan hasten dira. Uztailean euren gisara ibiltzeko gai dira; kolonia uzten dute eta handik hainbat kilometrotara ikus daitezke.

Abuztuaren amaieran eta irailean migratzen dute –betiere gauzez– Afrika tropikalera iritsi arte.

Nafarroan ehunetik gora bikote habiagile daude; batez ere kolonietan, hamar bat lezkaditan banatzen dira hegazti horiek. Habia egiteko lekuen artean nabarmentzekoak dira Las Cañas aintzirak, 26-28 bat bikoterekin, eta Alesbes herritik gertuko lezkadi bat, 33-38 bikoterekin. Tuterako Cardete aintziran ere mordoska bizi da: 21-23 bikote ugaltzaile inguru.

Dena dela, ez dira bazterrean uztekoak Erriberako aintziretako lezkadi batzuk eta Arga eta Ebro ibaietako ibar-baso batzuk ere. Ale guztiak hezegune gutxi batzutan biltzea arriskutsua litzateke, edozein gorabehera gertatuta ere, mehatxu larrian legoke eta populazio gehiena; ondorioz, beste gune horiek hor izatea berme bat da ardeidoentzat. Euskal Autonomia Erkidegoan, migrazio-bideetan baino ez dira ikusi izan; nolanahi ere, berriki bikoteren batek Guardiako hezeguneetan, Araban, hazi ditu kumeak.



AVES DE ESTUARIO

ARDEIDAS (GARZAS Y AFINES)

Garza Imperial (Lertxun Gorria). *Ardea purpurea*

Gusta de nidificar en orillas de lagunas o madres viejas de ríos, invadidas por vegetación palustre, fundamentalmente carrizal.

Llega a nuestras latitudes en marzo y hace enormes plataformas en lo más espeso del carrizal, donde pone de 3 a 6 huevos azul verdosos que son incubados principalmente por la hembra, durante casi un mes. Los pollos que abandonan el nido hacia los diez días, vuelan a las 6 semanas.


Acabada la nidificación, las garzas imperiales se dispersan en todas direcciones pudiendo alejarse de su colonia cientos de kilómetros. En agosto y septiembre parten aisladas o en pequeños grupos, migrando sobre todo de noche, hasta alcanzar sus cuarteles de invierno africanos.

Más pequeña que la Garza Real, de plumaje oscuro, es fácil observarla en el Ebro y cauces bajos del Arga y Aragón, pescando. Llama la atención su forma de atraer a los peces. A la orilla del río, en plena canícula, forma un embudo con sus alas alrededor de la cabeza, que proyectan una sombra que atrae a los peces simulando una fresca pero falsa cueva.

La población nidificante en Navarra supera el centenar de parejas, distribuidas principalmente en colonias, en una decena de carrizales. Destacan como lugares de nidificación, las lagunas de Las Cañas con 26-28 parejas y un carrizal cercano a Villafranca, con 33-38 parejas, seguidos muy de cerca por la laguna de Cardete, en Tudela, con 21-23 parejas reproductoras.

Sin embargo, otros carrizales de lagunas de la Ribera y sotos del Arga y Ebro, no deben ser menospreciados, pues constituyen una garantía frente a la vulnerabilidad que supone la concentración de efectivos en unos pocos humedales, en los que cualquier contratiempo afectaría de forma irreversible a la mayoría de la población.

En la Comunidad Autónoma Vasca sólo es observada durante los pasos migratorios, si bien recientemente alguna pareja ha criado en los humedales de Laguardia, en Álava.



Lertxun Gorria (Garza Imperial). *Ardea purpurea*

Urmaelen ertzean edo ibaien uharka zaharretan habia egitea gogoko du lertxun gorriak. Zingirako landareez, batez ere lezkaz, betetako lekuak aukeratzen ditu.

Martxoan iristen dira Euskal Herrira eta lezkadi trinkoenetan egiten dituzte egundoko habiak. Kolore urdin berdexka duten 3-6 arrautza jartzen dituzte emeek eta bi gurasoek (gehienbat emeek) ia hilabetez txitatzen dituzte. Txitek hamar egun inguru dutenean habia uzten dute, eta sei aste betetzean hegan hasten dira.

Ugaltzeko garaia amaitu ostean, lertxun gorriak sakabanatu egiten dira eta beren kolonietatik ehunka kilometrotara joaten dira. Abuztuan eta irailean abiatzen dira, bakarka edo talde txikitan. Migrazioa batez ere gauzez egiten dute, Afrikara iritsi arte, eta han pasatzen dute negua.

Lertxun hauskara baino txikiagoa da eta lumaje iluna du. Erraz ikusten da Ebron, Arga eta Aragoi ibaien behealdean ere bai. Arrantzan ibiltzen da, eta oso deigarria da nola erakartzen dituen arrainak. Udaminean, ibaiertzean jarri eta buruaren inguruan inbutu moduko bat osatzen du hegokekin. Hartara, itzalgunea sortzen du uretan, haitzulo fresko baten antzekoa, eta arrainak hara inguratzen dira.

Ehun bikote baino gehiagok egiten dute habia Nafarroan, hamar bat lezkadietan kokatutako kolonietan, batez ere. Las Cañas urtegiaren 26-28 bikote daude, Alesbestik gertu dagoen lezkadi batean 33-38 bikote bizi dira, eta Cardeteko urmaelean, Tuteran, beste 21-23 bikote ugaltzen dira.

Erriberako urmaeletako beste lezkadiak, eta Arga nahiz Ebro ibaietako ibar-basoak aintzat hartzekoak dira. Izan ere, bikote guztiak hain leku gutxitan kontzentratu egoteak arriskua dakar: gune horietan arazoren bat sortuz gero, egoera oso larria izango litzateke. Horrelako larrialdi bat gertatuz gero, inguruan lezkadi eta ibar-basoak egoteak espeziaren iraupena ahalbideratuko luke, eta horregatik dute hainbesteko garrantzia oraingoz hutsik dauden gune horiek. Euskal Autonomia Erkidegoan, migrazio garaian soilik ikusten dira lertxun gorriak, baina oraindik orain Araban, Guardiako ingurune hezeetan, bikote batek hazi ditu kumeak.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

ARDEIDOAK (LERTXUNAK ETA KIDKOAK)



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Chorlitejos y afines

Son de tamaño pequeño y mediano: patas y pico largos; alas largas y puntiagudas.

- Avefría,
- Chorlitejos,
- Chorlitos,
- Vuelvapedras.

Txirritxoak eta kidekoak

Neurriz txikiak eta ertainak dira: ankak eta mokoak luzeak; egoak luzeak eta finak.

- Hegabera,
- Txirritxoak,
- Txirriak,
- Harri-iraunlaria.

Avefría Común (Hegabera). *Vanellus vanellus*

Las avefrías, de 30 cm tienen las partes superiores negras con irisaciones metálicas, inferiores blancas, cola blanca con franja terminal negra y distintivo moño. Además es el único limícola europeo de alas anchas. Propia de campos de cultivo, prados y barbechos, en invierno está presente también en playas de limos. En Euskal Herria nidifica en muy escaso número cerca de lagunas y regadíos del área mediterránea navarra, si bien en invierno es un ave muy común en todo el territorio, sobre todo con olas de frío.



Hegabera (Avefría Común). *Vanellus vanellus*

Hegaberek 30 cm-koak izaten dira. Gainaldea beltza dute, irisazio metalikoekin. Behealdea zuria dute, eta buztana ere zuria, lerro beltzarekin bukaeran. Hegaberen bereizgarri den mototsa dute buruan. Hego zabalak dituen limikola bakarra da Europa guztian. Soroetan, belardietan eta lugorrietan egoten da, eta lohi-guneetan ere bai, negualdean. Euskal Herrian habia bakar batzuk jartzen dituzte hegaberek urmaelen inguruan, eta Nafarroako inguru mediterraneoko sail ureztatueta. Neguan, ordea, ohikoak dira lurralde osoan, batez ere hotzaldietan.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

Chorlitejos (Txirritxoak). *Charadrius s.p.*

Tres especies de chorlitejos pueden observarse en Euskal Herria:

- el Chorlitejo Chico (*Charadrius dubius*)
estival y nidificante en ríos de la vertiente mediterránea y algunas marismas cantábricas,
- el Chorlitejo Grande (*Charadrius hiaticula*)
- el Chorlitejo Patinegro (*Charadrius alexandrinus*).

El primero es con mucho el más común y abundante; los otros están únicamente presentes en las migraciones o como invernantes. Morfológicamente se caracterizan por su tamaño pequeño (15-19 cm) partes superiores pardas, inferiores blancas y conspicuas bandas blancas y negras en la cabeza y cuello.



Txirritxo Txikia / Chorlitejo Chico



Txirritxo hankabeltza / Chorlitejo Patinegro

Txirritxoak (Chorlitejos). *Charadrius s.p.*

Euskal Herrian hiru txirritxo mota daude:

- Txirritxo Txikia (*Charadrius dubius*),
- Txirritxo Handia (*Charadrius hiaticula*)
- Txirritxo Hankabeltza (*Charadrius alexandrinus*).

Txirritxo txikia udan ere hemen bizi da, isurialde mediterraneoko ibaien inguruan egiten du habia, eta kantauriar itsasoko padura batzuetan ere bai. Espezie hori da ugariena, gainerakoak migrazio-garaian ikus daitezke, eta negua pasatzera ere etortzen dira. Morfologikoki, tamaina txikia dute (15-19 cm), gainaldea arrea, behealdea zuria, eta lerro zuri eta beltz nabarmenak buruan eta lepoan.



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Chorlitos (Txirriak). *Pluvialis s.p.*

Las únicas especies comunes en nuestra tierra, ambas únicamente en invierno, son:

- Chorlito Dorado (*Pluvialis apricaria*)
- Chorlito Gris (*Pluvialis squatarola*)

De 28 cm, dorso vermiculado de gris o amarillo, en plumaje nupcial presentan la cara, pecho y vientre negros. Nidificantes cincumpolares, en invierno descienden a latitudes más meridionales, prefiriendo el Chorlito Dorado prados y campos del interior y el Chorlito Gris costas arenosas y marismas.



Urre txirri arrunta / Chorlito Dorado

Txirriak (Chorlitos). *Pluvialis s.p.*

Euskal Herrian ikus daitezken bi espezie bakarrak, eta biak ere neguan soilik dira

- Urre txirri Arrunta (*Pluvialis apricaria*)
- Txirri Grisa (*Pluvialis squatarola*) dira

28 cm-koak izaten dira. Bizkarralde pintoa dute, grisa edo horia. Eztei-jantzia dutenean, musua, bularraldea eta sabelaldea beltza izaten dute. Zirkulu polarrean ugaltzen dira eta negu partean hegaldara jaisten dira. Urre txirri arruntak belardiak eta barrualdeko soroak nahiago ditu, eta txirri grisak, berriz, itsasertz hareatsuak eta padurak.



ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)



Vuelvepiedras (Harri-iraunlaria). *Arenaria interpres*

El Vuelvepiedras (*Arenaria interpres*) es otro limícola de 23 cm, compacto, de plumaje arlequinado, patas cortas de color rojo o naranja brillante y pico corto ligeramente encurvado.

Típico de costas rocosas y playas de guijarros, también frecuenta playas de arena y limos, donde como su nombre indica, voltea con el pico las piedrecillas, conchas y otros objetos para capturar los invertebrados que se refugian bajo ellos.

Nidifica en el área circumpolar descendiendo a latitudes más meridionales durante los pasos e invernada.

Harri-iraunlaria (Vuelvepiedras). *Arenaria interpres*

Harri-iraunlaria (*Arenaria interpres*) 23 cm-ko limikola da.

Trinkoa da. Lumaje marroi, beltz eta zuria du.

Hanka motzak ditu, gorriak edo laranja-kolorekoak.

Mokoa motza eta, gehienetan, kurbatua. Itsasertz harritsuetan eta harribilezko hondartzetan ibiltzen da, batez ere.

Hondartza hareatsuetara eta lohi-inguruetara ere joaten da harri-iraunlaria. Bere izenak adierazten duen bezala,

harri koskorak, maskorak eta beste objektu txikiak iraultzen ditu, haien azpian ezkutatzen diren ornogabeak harrapatzeko.

Zirkulu polarrean ugaltzen da, eta hemen migrazio-garaian eta negu partean ikus dezakegu.



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Andarríos

Limícolas pequeños o medianos de plumaje discreto, patas largas, pico largo y recto y reclamos característicos y ruidosos. Poseen la costumbre común de balancear el cuerpo cuando se sienten intranquilos. Prefieren aguas someras tanto dulces como saladas, ríos, prados húmedos y playas de limos donde capturan los invertebrados picando en la superficie o introduciendo el pico en el suelo. Asimismo nidifican en el suelo, entre guijarros o entre la hierba, siendo la puesta normal cuatro huevos. Sólo el Andarríos Grande y ocasionalmente el Bastardo usan nidos de otras aves construidos en árboles.

Combatiente (Borrokalari). *Philomachus pugnax*

Emparentado con los correlimos, es una especie propia de prados, campos de cultivo y brezales húmedos. De tamaño medio, presenta un exagerado dimorfismo sexual en el que los machos, mayores (29 cm) y vivamente adornados con gorgueras y penachos auriculares de colores muy variables destacan sobre las hembras, menores (24 cm) y más discretas. Durante el cortejo, los machos se juntan en lugares determinados donde pelean entre ellos y atraen a las hembras. Éstas, una vez fecundadas, se encargan de todo el proceso de incubación y crianza de los pollos. Son aves nórdicas que sólo bajan al sur de Europa a pasar el invierno.

Emea / Hembra



Kuliskak

Limikola txiki eta ertainak dira. Lumaje apala dute, hanka luzeak, moko luze eta zuzena, eta apeu zaratatsua. Urduri daudenean gorputza balantzaka ibiltzen dute. Ur gezatan nahiz ur gazitan ibiltzen dira, eta sakonera eskaseko urak nahiago dituzte. Ibaietan, belardi hezeetan eta lohi-guneetan ere ibiltzen dira. Habia lurrean egiten dute, harribilen artean edo belar artean, eta gehienetan lau arrautza jartzen dituzte. Soilik kuliska ilunek eta, noizean behin, kuliska pikartek erabiltzen dituzte beste hegaztiekin zuhaitzetan egindako habiak.



Arra / Macho

Borrokalari (Combatiente). *Philomachus pugnax*

Txirrien familiako espeziea da. Belardietan, soroetan eta txilardi hezeetan bizi dira borrokalariak. Tamaina ertainekoa dira eta sexu-dimorfismo handia dute. Arrak handiagoak dira (29 cm) eta kolore askotako apaingarri ugari dute (koilareak, belarri ondoko mototsak...). Emeak txikiagoak dira (24 cm) eta ez dute horrelako apaingarririk. Gorteiatze-garaian, arrak leku jakinetan elkartzen dira eta elkarrekin borrokatzen dute emeak erakartzeko. Ernalketaren ostean, emeak arduratzen dira arrautzak txitatzeaz eta txitak hazteaz. Europako iparraldeko hegaztiak dira eta negua pasatzera soilik jaisten dira hegoaldera.

ESTUARIOKO HEGAZTIAK

CHARADRIIDOAK (LIMIKOLAK)

Archibebes y Andarríos (Bernagorriak y Kuliskak).

Tringa s.p.

Ambos adultos se ocupan de la incubación, que va de 20 días en el Andarríos a 25 en archibebes, y del cuidado de los pollos. En la fase final de su crecimiento puede estar presente sólo un adulto, generalmente el macho.

Seis especies, tres archibebes y tres andarríos, son comunes en Euskal Herria. De éstas sólo nidifican el primero en número muy pequeño en lagunas, sotos y embalses del área mediterránea navarra y el segundo mucho más extendido en ríos mediterráneos y cantábricos:

- el Archibebe Común (*Tringa totanus*) de patas y pico rojo y distintiva franja alar blanca,
- y el Andarríos Chico (*Tringa hypoleucos*)

Aparecen en los pasos y ocasionalmente como invernantes en marismas costeras y masas de aguas continentales.

- el Arcibebé Claro (*T. nebularia*) y
- el Arcibebé Oscuro (*T. ochruros*),
- el Andarríos Grande (*T. ochropus*) y
- el Andarríos Bastardo (*T. glareola*),



Bernagorriak y Kuliskak (Archibebes y Andarríos).

Tringa s.p.

Bi gurasoen artean txitatzen dituzte arrautzak.

Kulisen kasuan, 20 egun irauten du inkubazioak eta, bernagorrien kasuan, 25 egun. Txitak jaio eta gero, bi gurasoak arduratzen dira haiek hazteaz.

Azken fasean heldu bat nahikoa izaten da kumeak zaintzeko eta, gehienetan, arrak hartzen du ardura hori.

Sei espezie ohikoak dira Euskal Herrian, baina horietatik bik bakarrik egiten dute hemen habia:

- Bernagorri Arrunta (*Tringa totanus*)
- Kuliska Txikia (*Tringa hypoleucos*).

Bernagorri arruntak moko eta hanka gorriak ditu, eta lerro zuria hegoetan. Habia bakar batzuk jartzen dituzte Nafarroako inguru mediterraneoko urmael, ibar-baso eta urtegietan.

Kuliska txikia ugariagoa da, eta ohikoa da isurialde kantauriar eta mediterraneoko ibaietan.

Migrazio-garaian beste lau espezieak ikus daitezke. Batzuetan negua hemen pasatzen dute, itsasertzeko paduretan edo barrualdeko ingurune hezeetan:

- Kuliska Zuria (*T. nebularia*),
- Bernagorri Iluna (*T. ochruros*),
- Kuliska Iluna (*T. ochropus*) eta
- Kuliska Pikarta (*T. glareola*).



AVES DE ESTUARIO

CHARÁDRIIDAS (LIMÍCOLAS)

Zarapitos y agujas

Son los mayores limícolas europeos, 58 y 41 cm respectivamente. De plumaje pardo discreto, obispillo blanco, patas largas al igual que el decurvado pico. Los reclamos son a su vez distintivos y el «cur-li» del Zarapito Real le da nombre en euskera, «kurlinka» o «kurliton» y en inglés «curlew».

Habitan en prados húmedos, pasándose a las marismas cuando el frío hiela el suelo y les impide clavar el pico para buscar invertebrados.

Kurlintak eta kuliskak

Europako limikola handienak dira (58 cm eta 41 cm hurrenez hurren). Lumaje arrea dute eta ipurtxuntxur zuria. Moko luze eta kurbatua dute, eta hanka luzeak. Apeu bitxiak dituzte eta egiten duten soinuari («kur-li») zor diote izena («kurlinka» euskaraz; «curlew» ingelesez).

Belardi hezeetan bizi dira, baina hotzaldietan, lurra izozten denean, ezin dute mokoak lurrean sartu ornogabeak harrapatzeko, eta horregatik joaten dira paduretara.

Zarapitos (Kurlintak). *Numenius s.p.*

- Zarapito Real (*Numenius arquata*)
- Zarapito Trinador (*N. phaeopus*)

El Zarapito Real es el más común entre nosotros, tanto en las migraciones como en la invernada, en tanto que el Zarapito Trinador, menos numeroso es observable en los pasos.

Kurlintak (Zarapitos). *Numenius s.p.*

- Kurlinta Handia (*Numenius arquata*)
- Kurlinta Bekainduna (*N. phaeopus*)

Kurlinka handia da ohikoena gure artean: migrazio-garaian eta negualdean hemen ikusten dugu. Kurlinka bekainduna ere migrazio-garaian ikus dezakegu Euskal Herrian, baina ez da kurlinka handia bezain ohikoa..



Kurlinta handia / Zarapito Real



URERTZEKO HEGAZTIAK

ALCEDÍNIDAS - ALZEDINIDOAK

Martín Pescador (Martin Arrantzalea). *Alcedo atthis*

La observación más típica en el campo de un Martín Pescador es la de un dardo azul en vuelo rasante sobre el agua, bien siguiendo el curso de un río sin salirse de sus márgenes o cruzando una masa de agua abierta, acompañado de una nota de reclamo aguda y penetrante.

Si se posa en una rama o una piedra de la orilla, podremos admirar el vivo plumaje que descubre su pertenencia a un orden (Coraciiformes) de origen tropical.

Rechoncho, de cabeza grande y largo y afilado pico negro, con una talla que ronda los 18 cm, es el ave pescadora más pequeña de Europa. Las alas y cola cortas, de color verde azulado, le obligan a un vuelo directo, rápido y zumbante. Tiene las patas pequeñas y débiles.

Pesca zambulléndose desde un posadero, o bien lanzándose desde el aire, donde es capaz de quedarse inmóvil gracias a un vuelo cernido.

La base de su alimentación la constituyen los peces de un tamaño inferior a 10 cm indiferentemente de la especie a la que pertenezcan.

Los peces, una vez pinzados con el pico, son golpeados contra el posadero hasta matarlos; acto seguido se los traga comenzando por la cabeza. La dieta se complementa con renacuajos, crustáceos, gusanos y demás animales acuáticos que pueda dominar.

La existencia de taludes para el nido junto con la calidad del agua son los principales factores que condicionan la instalación de una pareja reproductora de Martín Pescador.

El nido es un túnel de entre 30 y 100 cm de profundidad y de 12-15 cm de diámetro, con una cámara más amplia en el fondo.

La hembra pone normalmente 6-7 huevos, sobre un somero lecho de espigas de pescado. Los pollos permanecerán en el nido de 23 a 27 días siendo alimentados por ambos adultos con peces y también con plumas, que les ayudarán a los pollos a envolver las espigas de pescado antes de regurgitarlas.

Martin Arrantzalea (Martín Pescador). *Alcedo atthis*

Martin arrantzaleak gezi urdin baten itxura du ur azalaren gaineko hegaldian, ibaiaren ibilbidea jarraituz, edo ur irekiak zeharkatuz. Eta gezi urdinarekin batera, apeuren soinu ozena entzuten da.

Adar baten gainean edo ur-bazterreko harri baten gainean pausatzen bada, martin arrantzalearen lumaje koloretsuak adieraziko digu jatorri tropikala duen familiakoa dela (Coracii-forme).

Lodikote samarra da. Buru handia du, eta moko beltz luze eta zorrotza. 18 cm inguru ditu eta Europako hegazti arrantzale txikiena da. Buztana eta hegoak motzak dira, horregatik da hain zuzena eta azkarra martin arrantzalearen hegaldia. Kolore berde urdinxka du, eta hanka txiki eta ahulak.

Arrantza egiteko, pausagune batetik edo airetik urperatzen da. Airean geldi-geldi egon daiteke, hegoak astinduz.

Arrain txikiak dira martin arrantzalearen elikaduraren oinarri. 10 cm baino txikiagoak diren arrainak jaten ditu, edozein espeziekoak direla ere.

Mokoarekin harrapatzen ditu arrainak, eta pausagunearen kontra kolpatzen ditu, hiltzen diren arte. Gero irentsi egiten ditu, burutik hasita. Arrainez gain zapaburuak, krustazeoak, harrak eta uretan harrapatzen dituen beste animaliak ere jaten ditu.

Martin arrantzale bikoteek ur-bazter malkartsuak behar dituzte habia egiteko, eta kalitate oneko urak behar dituzte arrantzarako.

Habia 30-100 cm-ko sakonera duen tunela da, eta 12-15 cm-ko diametroa du. Tunelaren amaieran ganbera zabalago bat dago.

Emeak 6-7 arrautza jartzen ditu, arrain-hezurrez osatutako geruza fin baten gainean. Txitak 23-27 egunez egoten dira habian, eta gurasoek arrainak eta lumak ematen dizkiete jateko. Hartara, arrain-hezurak ahotik botatzea errazagoa izango da kumeentzat, lumetan bilduta botako baitituzte.



AVES DE RIBERA

ALCEDÍNIDAS - Martín Pescador

Ampliamente distribuido por el paleártico, en Europa se le encuentra desde el sur de Suecia hasta el Mediterráneo.

Sedentario entre nosotros, se detecta un aflujo de aves entre julio y octubre, debido a la dispersión postgenerativa de jóvenes.

En Euskal Herria está presente como nidificante en todos los ríos de las vertientes atlántica y mediterránea que mantengan unas condiciones aceptables de pureza, desde el nivel del mar hasta 1.000 m. En invierno amplía su área y ocupa cualquier masa de agua con peces, llegando hasta el Abra bilbaíno.

La contaminación de los ríos y, en estos últimos años, la corrección y dragado de los ríos con la consiguiente destrucción de los márgenes, ha hecho disminuir mucho nuestra población de martines pescadores, que podemos calcular en unas 400-600 parejas.

Paleartiko guztian zabaldutako espeziea da. Europan, Suedia hegoaldetik Mediterraneoraino hedatu da.

Gure inguruan sedentarioa da. Uztailetik urrira bitartean habia utzi duten martin arrantzale gazteak etortzen dira.

Euskal Herrian isurialde kantauriar eta mediterraneoko ibai inguruetan bizi da. Ur nahiko garbia behar du. Itsas mailatik 1.000 m-ko altuera bitartean bizi daiteke. Neguan eremu zabalagoak hartzen ditu eta Bilboko Abarraino iristen da.

Ibaian kutsadurak eta azken urteotan ibaietan egindako zuzentze- eta dragatze-lanek ibaiertzak suntsitu dituzte eta, horren ondorioz, nabarmen gutxitu dira martin arrantzaleak. Gaur egun, 400-600 bikote inguru egongo dira.



URERTZEKO HEGAZTIAK

ALZEDINIDOAK - Martin Arrantzalea



AVES DE RIBERA

CÍNCLIDAS

Mirlo acuático (Ur Zozoa). *Cinclus cinclus*

Es la especie más estrictamente unida a las aguas rápidas, frescas y oxigenadas del curso alto y medio de los ríos. Recorre en vuelo recto, rápido y rasante los aproximadamente 1.000 m de cauce que forman su territorio.

La metálica nota de reclamo es emitida tanto en vuelo como cuando se posa en una piedra del centro del río.

Nervioso, se agacha y endereza continuamente cuando está posado.

Ave robusta, de tamaño ligeramente inferior al Mirlo Común, llama enseguida la atención el babero blanco en contraste con los tonos marrón y gris oscuro de la cabeza, dorso, alas y vientre. La corta cola es mantenida casi siempre en alto. Los jóvenes tienen las partes superiores de color gris pizarra y las inferiores moteadas de gris y blanco.

Capaz de nadar y bucear, su plumaje impermeabilizado le protege del agua.

Captura sus presas (larvas acuáticas de efémeras, plecópteros, dípteros y tricópteros, gusanos y algún esporádico renacuajo o alevín de pez) caminando por la orilla con las patas en el agua o buceando con ayuda de sus alas. Las fuertes patas le permiten desplazarse sumergido, agarrándose a las rocas del fondo.

Muy exigente en cuanto a la calidad del agua. Prefiere cauces rápidos, con saltos de agua y márgenes abruptos con oquedades donde instalar su nido. Éste es una bola cerrada de musgo y paja con una entrada lateral. En ocasiones lo sitúa en agujeros de árboles, debajo de cascadas o en construcciones humanas próximas al río, como molinos y puentes.

Ya en marzo, la hembra pone de 4 a 7 huevos.

Los pollos, muy precoces, son capaces de andar y nadar antes que de volar.

Distribuido de forma discontinua por toda Europa, este de Asia y norte de África.



Ur Zozoa (Mirlo acuático). *Cinclus cinclus*

Ibaien goialdeko eta erdialdeko ur bizi, fresko eta oxigenatuak behar dituen espeziea da. Hegaldi zuzen eta azkarrean, ia ura ukituz, mila metro inguruko ibai-ibilbidea zeharkatzen du, tamaina horretakoa izaten baita ur-zozoaren lurraldea.

Apeuaren soinua errepikatzen du, bai hegaldian, bai ibaiaren erdiko harri baten gainean pausatuta dagoenean.

Urduri egoten da; behin eta berririo makurtu eta zutitzen da pausatuta dagoen bitartean.

Hegazti sendoa da, zozo arrunta baino pixka bat txikiagoa.

Ur-zozoaren golko zuria deigarria da, kolore marroi eta arrekoak baititu burua, bizkaraldea, hegoak eta sabelaldea.

Buztana goian edukitzen du ia beti. Ur-zozo gazteek gainaldea arbel-kolorekoa dute, eta behealdea pintoa (zuri-grisa).

Igeri egiten du, urpean ere ibiltzen da, eta lumaje iragazgaitza du.

Harrapakinak (efemeraren larbak, plekopteroak, dipteroak, trikopteroak, harrak eta, noizbehinka, zapabururen bat edota arraintxoren bat) harrapatzeko, urertzean ibiltzen da ur-zozoa, hankak uretan dituela, edo urpean egiten du igeri, hegoak erabiliz. Hanka sendoak ditu, eta haiei esker urpean oinez ibili daiteke, hondoko harriei helduz.

Oso kalitate oneko ura behar du. Ur azkarrak nahiago ditu, ur-jauziekin eta ibaiertz malkartsuekin, zokoetan habia egiteko.

Ur-zozoaren habia goroldioz eta lastoz osatutako bola itxia izaten da, eta saihets batean edukitzen du sarrera.

Batzuetan zuhaitz-zuloetan kokatzen du, beste batzuetan ur-jauzien azpian, edo ibai inguruko eraikinetan (errotetan, zubietan, etab.).

Martxoan emeak 4-7 arrautza jartzen ditu. Txitak goiztiarrak izaten dira. Lehendabizi oinez ibiltzen eta igeri egiten ikasten dute, eta gero hasten dira hegan.

Europa osoan, Asiako ekialdean eta Afrikako iparraldean bizi dira ur-zozoak.

URERTZEKO HEGAZTIAK

ZINKLIDOAK

Es sedentario. Sólo las poblaciones más septentrionales realizan pequeños desplazamientos poblacionales.

En un principio todos los ríos de la vertiente atlántica de Euskal Herria estarían ocupados por el Mirlo Acuático en gran parte de su recorrido. Sin embargo la contaminación surgida en el presente siglo lo ha relegado a las cabeceras de éstos. De todas formas, en algunos ríos bien conservados como el Oka o el Bidasoa llega a descender hasta casi el estuario.

En la vertiente mediterránea sólo se le encuentra en las zonas montañosas, si bien, en ocasiones, ejemplares que huyen del frío o jóvenes en dispersión postgenerativa pueden bajar hasta la Ribera Navarra.

Podemos calcular en 150-300 las parejas reproductoras existentes en Euskal Herria.

Sedentarioak dira. Oso iparraldean kokatutako populazioak soilik mugitzen dira lurralde batetik bestera.

Printzipioz, Euskal Herriko isurialde kantauriarreko ibai-ibilbideen zati gehientsuenak egokiak izango lirateke ur-zozoarentzat. XX. mendean sortutako kutsadurak, ordea, goi-ibarretara bidali ditu ur-zozoak. Hala ere, ondo kontserbatutako zenbait ibaietan –Okan edo Bidasoan, esate baterako– ia estuariaraino jaisten dira.

Isurialde mediterraneoan mendialdean soilik bizi dira baina, batzuetan, Nafarroako erriberaraino iristen dira zenbait ur-zozo, hotzaldiak saihestu nahian, edo habia utzi ondoren leku egoki baten bila.

Euskal Herrian 150-300 bikote daude.



AVES DE RIBERA

MOTACILLAS

Lavandera Cascadeña (Buztanikara Horia).

Motacilla cinerea

De nuestras tres lavanderas es, sin duda, la más ligada al agua, ocupando torrentes, bordes de ríos, embalses, acequias, canales y estanques.

En la época reproductora se la encuentra en los arroyos y torrentes de aguas frescas y claras de montaña. Pero en invierno está presente en campos encharcados de tierras bajas, aguas cloacales, ríos contaminados e incluso al borde del mar.

Anda de forma rápida y nerviosa, con la larga cola en continua agitación y las patas en el agua, en busca de insectos y gusanos entre las piedras. De vez en cuando se lanza en vuelo ágil y acrobático tras insectos voladores.

Macho y hembra repiten el esquema cromático de pecho y vientre amarillos, y cabeza y espalda grises.

El macho en verano tiene la garganta negra.

Los jóvenes son de colores más desvaídos.

La taza de ramitas, raíces, hierba y musgo tapizada con pelo y plumas que constituye el nido, es construida en oquedades de muros, entre piedras, raíces de árboles, tejados de construcciones humanas o en nidos viejos de Mirlo Acuático. Pone 4-6 huevos.

Ampliamente distribuida por el paleártico, llega hasta el Círculo Polar Ártico en el norte de Escandinavia y Rusia. Aparece también en el oeste de Asia y el norte de África.

Es migradora parcial, y las poblaciones septentrionales pasan el invierno en el sur de Europa y norte de África.

A partir de septiembre se observa un aflujo de aves nórdicas, algunas de las cuales pasarán el invierno entre nosotros.

Retornarán a sus lugares de origen a mediados de marzo.

En Euskal Herria está presente como nidificante desde casi el nivel del mar en riachuelos de la costa hasta los casi 1.400 m en el alto Roncal. De todas formas es mucho más frecuente y abundante en los ríos de la vertiente atlántica que en los de la mediterránea. En esta última vertiente se le puede encontrar en el Ebro siempre que existan rápidos.

Buztanikara Horia (Lavandera Cascadeña).

Motacilla cinerea

Uharretan, ibaiertzetan, urtegietan, ubideetan, erretenetan eta urmaeletan ibiltzen da buztanikara horia.

Ugalketa-garaian mendi inguruko erreketan eta ur freskoa daramaten uharretan ibiltzen da. Neguan, berriz, behealdeko soroetako putzuetan, ur zikinetan, ibai kutsatuetan eta itsasertzean ere ikus dezakegu.

Ibilera azkarra du, buztan luzea etengabe astintzen du eta hankak uretan dituela ibiltzen da, harrien arteko intsektu eta harren bila. Noizbehinka hegaldi bizi eta akrobatikoak egiten ditu intsektu hegalaria harrapatzeko.

Arrak eta emeak lumaje berdintsua dute: bularralde eta sabelalde horia; burua eta bizkaralde grisa.

Uda partean, arrak eztarria beltza izaten du.

Gazteen lumajeak kolore motelagoak ditu.

Katilu itxurako habia egiteko hainbat material erabiltzen dituzte: adartxoak, sustraiak, belarra eta goroldioa biltzen dituzte oinarria egiteko; gero ile eta lumaz estaltzen dute. Leku desberdinetan jartzen dituzte habiak: hormetako zuloetan, harrien artean, zuhaitzen sustraietan, teilatuetan edo ur-zozoen habia zaharretan. 4-6 arrautza jartzen dituzte.

Paleartikoan oso zabaldua dagoen espeziea da eta zirkulu polar artikoraino iristen da (Eskandinavia eta Errusia iparralde).

Asia mendebaldean eta Afrika iparraldean ere badira buztanikara horiak.

Migratzailea da, neurri batean. Oso iparraldean dauden populazioak Europa hegoaldera eta Afrika iparraldera jaisten dira negua pasatzera. Irailetik aurrera, Europa iparraldetik datozen hegaztiak iristen zaizkigu eta horietako batzuk gure artean pasatzen dute negua. Martxo aldera jatorrizko lekutara itzultzen dira.

Euskal Herrian buztanikara horiak habiak egiten ditu itsas mailatik 1.400 m-ko altuera bitartean (itsasertzetik Erronkariraino). Ugariagoa da isurialde kantauriarrean, baina isurialde mediterraneoan ere aurki daiteke, Ebroko ur-lasterretan.



URERTZEKO HEGAZTIAK

ZINKLIDOAK



AVES DE RIBERA

MOTACILLAS - BUZTANIKARAK

Lavandera Blanca (Buztanikara Zuria). *Motacilla alba*

Talla: 18 cm. Muy esbelta y con una cola larga que agita de arriba abajo, casi constantemente.

La Lavandera Blanca es un pájaro común en nuestro país, donde se distribuye por llanuras y fondos de valle a orillas de arroyos y ríos, huertos, labrantíos,..., en general por zonas próximas al agua.

Diseño, no muy llamativo, en colores gris, blanco y negro. Vuelo ondulado. Pasa gran parte del tiempo en el suelo, donde camina con agilidad, atrapando insectos, gusanos, lombrices y pequeños moluscos. Anida en agujeros de muros, rocas y taludes, que forra con pelos, plumas y lana. Pone de 5 a 7 huevos blancos, manchados de gris.

Nuestra población sedentaria se ve incrementada a partir de otoño por invernantes del oeste europeo.



Buztanikara Zuria (Lavandera Blanca). *Motacilla alba*

18 cm-ko hegazti liraina da. Buztan luzea du, eta goitik behera astintzen du, ia etengabe. Gure herrialdean ohikoa dugu, eta leku askotan aurki daiteke: lautadetan, haranetan, ibaiertzetan, baratzetan, labore-lurretan, etab. Eskuarki, ur inguruetan.

Ez du lumaje deigarria; kolore gris, zuri eta beltzak ditu. Hegaldi izurtoak egiten ditu. Gehienetan lurrian ibiltzen da, bizkor, jakien bila: intsektuak, harrak, zizareak eta molusku txikiak harrapatzen ditu. Horma, harkaitz eta malkarretan egiten dituen zuloetan jartzen du habia, eta material leunak erabiltzen ditu estaltzeko: ileak, lumak eta artilea. 5-7 arrautza jartzen ditu (zuriak, orban grisekin).

Udazkenetik aurrera, Euskal Herriko buztanikara zurien populazio sedentarioaz gain, Europa mendebaldetik negua pasatzera etortzen direnak ere hemen izaten ditugu.



URERTZEKO HEGAZTIAK

HIRUNDÍNIDAS - HIRUNDINIKOAK

Avión Zapador (Uhalde-enara). *Riparia riparia*

Construye sus nidos a la manera del Martín Pescador o el Abejaruco, excavando un túnel en taludes arenosos junto a ríos. Es colonial y migrador.

El Bigotudo-Tximutxa (*Panurus biarmicus*) y el Pájaro Moscón-Dilindaria (*Remiz pendulinus*) son especies de distribución más bien mediterránea.

Este último construye nidos muy peculiares, a modo de bolas esféricas con un túnel de entrada, suspendidas de chopos o sauces en la ribera.



Uhalde-enara (Avión Zapador). *Riparia riparia*

Habia martin arrantzaleek eta erlatxoriek egiten duten antzera prestatzen dute uhalde-enarek, ibaiertzeko malkar hareatsuetan zuloa eginez. Koloniala eta migratzailea da.

Tximutxa (*Panurus biarmicus*) eta dilindaria (*Remiz pendulinus*) isurialde mediterraneoan daude, gehienbat. Dilindariak oso habia bitxiak egiten dituzte. Bola esferikoak dira, sarrera-tunel batekin, eta ibaiertzeko makal eta sahatsetan zintzilik jartzen dituzte.



Lezkadietako hegaztiak

Aves de carrizal

Carriceros

Los carriceros (género *Acrocephalus*) son passeriformes pertenecientes a la familia de los sílvidos (curruacas, zarceros, mosquiteros y reyezuelos) habitantes de las masas de carrizos, espadañas, juncos y matorrales de marismas, lagunas, orillas de ríos y otras zonas palustres.

Son mucho más notorios por sus cantos, variaciones específicas de una serie repetida de notas musicales mezcladas con otras ásperas y rechinantes semejantes al canto de un insecto o al croar de un anfibio. Emitidos incansablemente día y noche, no cabe duda, crean un ambiente especial en los humedales.

Sólomente cuando se encaraman a lo alto de un carrizo para cantar o cuando salen al borde del cañizal podremos verlos como unos pájaros poco vistosos, estilizados, de movimientos nerviosos, patas fuertes y pico delgado que delata su régimen insectívoro.

Inmediatamente volverán a introducirse en el interior del carrizal saltando de tallo en tallo y escudriñando todos los rincones en busca de algún insecto.

En Europa existen seis especies de las que sólo tres son habituales en el País Vasco:

- Carricero Común (*Acrocephalus scirpaceus*),
- Carricero Tordal (*Acrocephalus arundinaceus*)
- Carricerín Común (*Acrocephalus schoenobaenus*).

Estos tres carriceros pueden convivir en el mismo carrizal y evitar la competencia interespecífica repartiéndose los diferentes recursos que este medio les ofrece conforme a los requerimientos tróficos y espaciales particulares de cada especie. El Carricerín Cejudo (*Acrocephalus paludicola*) es un migrante escaso.

Lezkariak

Lezkariak (*Acrocephalus* generokoak) passeriformeak dira (txinbo, sasi-txori, txio eta erregetxoen familia berekoak). Padura, urmael, ibaiertz eta zingiretan bizi dira, lezkadi, ezpata-belar eta ihien artean.

Txio bitxiak dituzte: musika-doinuak errepikatzen dituzte, bariazioak eginez, eta intsektu edo anfibioek egiten dituzten antzeko soinu karrankariekin tartekatzen dituzte. Egunez eta gauzez etengabe aritzen dira kantuan, eta giro oso berezia sortzen dute ingurune hezeetan.

Lezka baten gainera kantatzera igotzen direnean edo kanaberadiaren ertzera hurbiltzen direnean soilik ikus daitezke. Ez dute itxura deigarria. Lirainak dira eta mugimendu azkarrak egiten dituzte. Hanka indartsuak dituzte eta intsektujaleen moko fina.

Berehala sartzen dira lezkadian, zurtoinen artean jauzika, zoko eta bazter guztiak miatuz, intsektu bila.

Europan sei espezie daude, horietatik hiru ohikoak dira Euskal Herrian:

- Lezkari Arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*),
- Lezkari Karratxina (*Acrocephalus arundinaceus*)
- Benarriz Arrunta (*Acrocephalus schoenobaenus*).

Hirurak ere lezkadi berean bizi daitezke. Espezien arteko lehia saihesten dute, inguruak eskaintzen dituen baliabideak banatzen baitituzte bakoitzaren ezaugarri eta premien arabera. Ur-benarriza (*Acrocephalus paludicola*) ere etortzen da noizbehinka migrazio-garaian.



Lezkari Karratxina / Carricero Tordal

AVES DE CARRIZAL - LEZKADIETAKO HEGAZTIAK

MUSCICÁPIDOS - MUSZIKAPIDOAK

Carricero Tordal (Lezkari Karratxina).

Acrocephalus arundinaceus

Es parecido a un Carricero Común grande (19 cm) y aprovecha su corpulencia para cazar presas mayores, como saltamontes, escarabajos, etc. Prefiere carrizales con tallos fuertes y altos o cañaverales.

La única condición que exige una pareja de carriceros para instalarse es la existencia de un macizo de carrizos o espadañas, llegando a instalarse en los grupos de espadañas que crecen en las terrazas inundadas de algunas empresas.

Totalmente estivales en el área europea,

llegan a las áreas reproductoras en los meses de abril-mayo, ocupando el mismo territorio del año anterior.

El nido de los carriceros es una taza profunda de paredes cilíndricas, sólidamente atada a tres o cuatro fuertes tallos de carrizo y tejida con hojas, tallos, flores de carrizo y plumón vegetal.

En mayo tiene lugar la puesta de 4 a 6 huevos.

Son aves habitualmente parasitadas por el cuco, que pone sus huevos en los nidos de éstos y les encomienda la crianza de sus pollos.

A finales de julio y hasta últimos de septiembre se produce la migración postnupcial hacia las áreas de invernada del África tropical. Para realizar este viaje de varios miles de kilómetros en el que atraviesan el inhóspito Sahara, deben acumular grasa que les sirva de combustible en el largo periplo. En esta acumulación de grasa juega un importante papel un pulgón (*Hialopterus prunii*) que a finales de verano se desarrolla abundantemente en las hojas de los carrizos y que posee un alto valor energético. En estos momentos, las aves se concentran en los carrizales infestados de pulgones quedando carrizales próximos en los que el pulgón no se ha multiplicado todavía prácticamente desiertos de carriceros.

El área de distribución de estos tres pájaros abarca gran parte de Europa, Asia y África. En Euskal Herria los carriceros Común y Tordal están repartidos por charcas, bordes de ríos, lagunas, colas de embalses y acequias de la vertiente mediterránea.

En la vertiente cantábrica, donde el área ocupada por el carrizal es mucho más reducida, son las marismas costeras los lugares donde se concentra el mayor número de parejas.

De la misma familia que los carriceros son la Buscarla Pintoja (*Locustella naevia*) y la Buscarla Unicolor (*L. luscinioides*), que además tienen en común sus costumbres escondedizas y cantos notorios, fácilmente identificables.

El Buitrón (*Cisticola juncidis*) es un pequeño pájaro al que se suele ver también en prados y herbazales húmedos, con su peculiar vuelo y emitiendo su “zic-zic” insistentemente.

El Escribano Palustre (*Emberiza schoeniclus*) frecuenta igualmente los marjales, aunque su nidificación es ocasional y es mucho más común en paso o como invernante.

Lezkari Karratxina (Carricero Tordal).

Acrocephalus arundinaceus

Lezkari arrunt handi baten antza du. 19 cm-ko hegaztia da, eta bere tamainaz baliatzen da harrapakin handiagoak harrapatzeko: matxinsaltoak, kakalardoak, etab. Zurtoin sendo eta altuak dituzten lezkadiak gogoko ditu, baita kanaberadiak ere.

Lezkari bikoteek habia jartzeko behar duten baldintza bakarra da lezka edo ezpata-belarrez osatutako ingurua izatea.

Zenbait lantegietako terrazetan ere, uretan hazten diren ezpata-belarren artean, egiten dituzte habiak lezkariak.

Uda partean izaten ditugu hemen. Apirilean eta maiatzean etortzen dira ugalketa-guneetara, eta aurreko urteko leku berean kokatzen dira. Lezkarien habiak katilu sakon baten itxura du.

Horma zilindrikoa du eta tinko lotuta dago hiruzpalau lezka-zurtoinetara. Hainbat material erabiltzen dituzte habia osatzeko: hostoak, zurtoinak, lezkaren loreak, etab.

Maiatzean 4-6 arrautza jartzen dituzte habian.

Kukuak sarritan jartzen ditu arrautzak lezkarien habian, eta lezkariak hazten dituzte kukuaren txitak.

Uztailaren amaieratik irailaren amaiera arte, eztei-osteko migrazioa egiten dute: Afrika tropikalera joaten dira negua pasatzera. Milaka kilometrotako bidaia hori egiteko –Sahara zeharkatuz– alde aurretik gantza pilatu behar dute. Eginkizun horretarako garrantzi handia du landare-zorriak (*Hialopterus prunii*). Uda-amaieran landare-zorri ugari izaten da lezken hostoetan, eta balio energetiko handia duen janaria da lezkariarentzat. Garai horretan landare-zorri gainezka dauden lezkarietan kontzentratzen dira lezkari guztiak, eta landare-zorri gutxiko lezkadietan, berriz, ez da ia lezkariarik egoten.

Hiru txori horiek Europa, Asia eta Afrikako lurralde askotan daude. Euskal Herrian lezkari arrunta eta lezkari karratxina putzuetan, ibaiertzetan, urmaeletan, urtegietan, eta isurialde mediterraneoko ubideetan ibiltzen dira.

Isurialde kantauriarrean lezkadien azalera urriagoa denez, bikote gehienak paduretan kontzentratzen dira.

Lezkarien familiakoak dira benarriz nabarra (*Locustella naevia*) eta benarriz gorritza (*L. luscinioides*). Espezie horiek ere antzeko ohitura iheskorak dituzte, eta txio bereziak.

Ihi-txoria (*Cisticola juncidis*) hegazti txikia da.

Belardi hezeetan ibiltzen da. Hegaldi bitxia du eta etengabeko soinua egiten du («zik-zik»). Zingira-berdantza

(*Emberiza schoeniclus*) paduran eta zingiretan ibiltzen da.

Gutxitan ugaltzen da hemen. Migrazio-garaian ohikoa dugu, eta negua pasatzera ere etortzen da.

AVES DE CARRIZAL

MUSCICÁPIDOS

Carricero Común (Lezkari Arrunta). *Acrocephalus scirpaceus*

Con un tamaño semejante al Carricerín, el **Carricero Común** tiene las partes superiores marrón uniforme, e inferiores crema pálido.

Se desplaza preferiblemente por la zona media-alta, extendiendo su campo de acción a arbustos y matorrales próximos. Aunque también actúa sobre las mismas presas que el Carricerín, tiene mayor tendencia a capturar insectos voladores que sorprende entre las hojas o caza al vuelo al modo de los papamoscas.



Lezkari arrunta (Carricero Común). *Acrocephalus scirpaceus*

Benarrizaren antzeko tamaina du. Gainalde marroi uniformea du eta behealde zurixka. Lezkadiaren goialdean ibiltzen da, eta inguruko zuhaixka eta sasietara ere joaten da.

Benarrizak harrapatzen dituen harrapakinei ere heltzen die, baina intsektu hegalariai nahiago ditu.

Hostoen artean ikusten ditu eta airean harrapatzen ditu, euli-txoriek egiten duten antzera.



LEZKADIETAKO HEGAZTIAK

MUSZIKAPIDOAK

Carricerín Común (Benarriz Arrunta).

Acrocephalus schoenobaenus

Tiene 13 cm de largo, partes superiores ocre listadas de negro, inferiores crema pálido y distintiva ceja blanca.

Se especializa en presas quietas o de movimientos lentos como larvas de mosquito, gusanos, pulgones y arañas, que en ocasiones puede capturar sumergiendo la cabeza en el agua. Prefiere actuar en la parte media inferior de la vegetación, moviéndose también por los carrizos finos y juncos que crecen sobre el agua.

Benarriz Arrunta (Carricerín Común).

Acrocephalus schoenobaenus

13 cm luze da. Gainalde okrea du, lerro beltzekin.

Behealde zurixka du eta bekain zuri nabarmena.

Geldirik dauden harrapakinak edo mugimendu geldoa dutenak harrapatzen ditu: eltxo-larbak, harrak, landare-zorriak eta armiarmak. Batzuetan, burua urpean sartzen du harrapakinari heltzeko. Landaretzaren behealdean gustura egoten da, eta ur gainean hazten diren lezka finen eta ihien artean ere ibiltzen da.

